

Nami Kanekori elkarrizketa (bertsio osoa)*

ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Musscheren japonierarako itzulpenari esker, 2015eko Japoniako Itzulpen Onenaren saria eskuratu zuen Nami Kanekok, 2016ko apirilean. Irakurleen bozken bitartez eta epaimahaiak gomendaturiko liburuen bidez, hamabost hautagaiko zerrenda bat osatu zen, lehenik; handik, bost finalista hautatu ziren, eta bi irabazle: batetik, Kirmen Uriberen *Mussche*, Nami Kanekok euskaratik itzulia eta Hakisuisha argitaletxeak argitaratua; bestetik, Patrick Chamoiseau idazle martinikarraren *Solibo magnifique* liburua, Ryoko Sekiguchik eta Patrick Honnorék japonierara itzulia.

ELIZABETE MANTEROLA: Lehenik eta behin, zorionak, Nami. Poztekoa da euskal irakurleontzat saria zuk irabazi duzula jakitea.

NAMI KANEKO: Eskerrik asko. Egia esan, ez nuen horrelakorik espero, eta, gainera, ez dakit zenbateko garrantzia izango lukeen hain urrun ikusten duzuen munduko zati honetan gertatutakoak. Baina, niretzat, bai, poztekoa izan da egindako lana baloratu izana eta euskal liburu batek halako ikusgarritasun bat lortu izana japonierara itzulirik, ez baita horrelakorik maiz gertatzen beste hizkuntza askotan.

Aitortzeko, esan beharra daukat, hasieran, *Mussche* sariaren irabazle hautatu

zutenean, zalantza handia etorri zitzaidala burura: akaso, hizkuntza ustez *berezi*, *bitxi* eta *ezezagun* batetik egindako itzulpen bat zelako? Baina sari banaketaren egunean de-segin zitzaidan zalantza hori, epaimahaia-koekin hitz egin nuenean. Zinez itzulpen ona iruditu zitzairen, eta jatorrizko lana ere interesgarria, beste hautagai askoren artean. Eta ez zuten japonieraz bakarrik irakurrita baloratu: jatorrizko hizkuntza ezagutzen duen bati iritzia eskatu zioten, finalista gertatu ziren beste lan guztiekin egin zuten legez (eta hori posible da Japonian badaudelako euskaldun batzuk baino gehiago, beste hizkuntza txiki eta gutxitu askotan adituak ere

* Elkarrizketa honen bertsio laburrago bat inprimatu da *Senex* aldizkariaren 47. zenbakian.

badauden bezala). Beraz, sari fidagarria dela esango nuke.

ELI: Saria emateko ekitaldiaren berri emango zeniguke, mesedez? Aipatu didazu itzultzaileen festa moduko bat izan zela.

NAMI: Bai, halaxe izan zen, baina ez soilik itzultzaileena, irakurleena ere bazen ekitaldia, haiek ere parte handia dutelako sari honetan. Sari banaketa apirilaren 24an ospatu zen, Tokioko liburutegi nagusietako batean. 200 lagunentzako aretoa bete-betea geratu zen, eta bazen ekitaldi osoa zutik ikusi zuen jendea ere; bi orduz, gainera! Literatura itzuliaren irakurle asko gerturatu zen, baita itzultzaile, editore, idazle eta kritikari mordoa ere.

Eta aipatu beharko nuke ez zela sari emate bat soilik izan. Programak eduki asko baitzuen: hasteko, epaimahaikoen arteko mahai-ingurua (guztiak itzultzaileak dira, ibilbide luzekoak eta oso ezagunak), eta han egin zituzten hautagai izan ziren liburuei buruzko iruzkinak, eta, gero, noski, sariduneri buruzkoak ere bai. Jarraian, itzultzaile sarituok diskurtso bana eman behar genuen, eta irakurketa bana egin ere bai. Han egon zirenen iritziz, azken hori izan omen zen interesgarriena. Eskatu ziguten itzultitako liburuaren zatitxo bat irakurtzeko. Nik Kirmen Uribek berak irakurtzen duen bideo bat jarri nuen, euskaraz errezititzen entzun zezaten, eta, gero, japonieraz irakurri (bitxia da niretzat ere itzultzaileak errezitaldi bat ematea, idazlea balitz bezala, baina hemen joera bat da azkenaldian, eta irakurleei gustatzen zaie, nolabait, itzuli duenaren beraren ahotsean entzutea testua). Gero, saridunon lanak ez ziren hor bukatu: epaimahaikideekiko elka-

rrizketan eta galdera-erantzunetan ere aritu behar izan genuen. Gainera, horiek guztiak amaitutakoan, irakurle asko aurkitu genuen irteeran, ilara luzea egiten, gure zain, itzultzaileekin hitz egiteko eta sinadura eskatzeko... Egun luze-luzea izan zen, baina denok pozik, nik uste.

ELI: Hemengo errealitatetik begiratuta, ondo desberdina da itzultzaileok hor bizi duzuen egoera. Inbidia ere ematen du. Ikus dezakegunez, itzultzaileen bisibilitatea Euskal Herrian baino handiagoa da Japonian. Zuk aipatutakoaren harira, baita Itzulpen Ikasketen diziplinaren barruko diskurtso nagusiaren kontrara ere, ezta?

NAMI: Bai, horixe iruditzen zait. Itzulpen Ikasketetan —jakina denez, ingeleserako itzulpengintzan eta mundu anglosaxoian oinarrituta—, nagusi da itzulpenaren eta itzultzailearen ikusezintasunaren diskurtsoa: liburu itzuli bat argitaratzen denean ez dela itzultzailearen figura kontuan hartzen, itzultitako lan bat aurkezten dela jatorriz hizkuntza horretan idatzia balitz bezala, itzulpen bat dela aipatu ere egin gabe, eta abar. Baina hemengo batzuok irudipena daukagu beharbada zenbait hizkuntza eta kulturatan ez dela beti horrela gertatzen. Hain zuzen ere, aipatu dudan sariaren ingurukoa izan daiteke horren isla.

Eta egia da hemen izugarritzko garrantzia ematen digutela itzultzaileoi eta gure lanei, bai irakurleek, bai kritikariek. Esaterako, harritu nintzen nire lehenengo itzulpena kaleratu zenean. Erreseinetan, ia beti aipatzen da itzultzailearen lana, baina ez hori bakarrik. Irakurleek gutunak eta mezuak bidaltzen dizkizute; ekitaldiren batean par-

te hartzen baduzu idazlearekin berarekin, jendea hurbiltzen zaizu, eskerrak emanez liburu hori japonierara ekartzeagatik, eta esanez jarraitzeko, mesedez, aurrerantzean ere liburu interesgarriak itzultzen! Beharbada, hizkuntza ezezagun batetik itzultzen dudalako, baina uste dut irakurleek ongi dakitela itzultzailearik gabe ezin dela kanpoko literaturaren berririk izan, ezin dituztela ezagutu hain hizkuntza desberdinetan sortzen diren munduko beste literaturak. Niri ongi iruditzen zait pentsaera hori, itzultzaileontzat zinez eskertzekoa baita irakurleengandik animoak jasotzea; eta, gainera, argitaletxeari ere bultzada bat ematen dio modu horretako irakurleen erreakzioak.

Eta badago beste alderdi interesgarri bat ere hemengo itzulpengintzan. Japonian, itzulpen bat «transparentea» dela esaten denean, ez du esan nahi asimilatzailea denik, Itzulpen Ikasketetan ohikoa den bezala. Alderantziz, esan nahi du atzean jatorrizko testua ikusiko balitz bezalako sententzia ematen duela itzulpen batek; hortaz, «gardena». Eta itzultzailearen lorpen gisa hartzen da hori: hau da, japonieraz irakurrita ere jatorrizkoan irakurri bazenu bezala sentiaraztea, jatorrizko testua «ukitu» bazenu bezala itzulpenaren bitartez. Hemen, laudorio bat ere bada itzulpen bat «garden» gisa kalifikatzea, esan nahi baitu halako poza ematen diela irakurleei.

ELI: Irakurri dudanaren arabera, itzultzaileek saiakerak, artikulua edo iritzi artikuluar ere idazten omen dituzte Japonian, euren lanaren berri emateko. Zuk egin al duzu halakorik? Hau da, eskatu al dizute itzuli dituzun lanen iruzkinak idazteko?

NAMI: Beno, itzultzaileok gure lanaren berri emateko baino gehiago, eskatzen digute lan zabalago batean aritzeko. Hau da, itzulpen batek oihartzun handia izan duenean, eta horregatik itzultzaile jakin baten lana nabarmen egin denean, eskatzen diote itzultzaileari, beste itzulpen lanak ez ezik, saiakerak, artikulua edo beste liburuaren iruzkinak egiteko (iruzkinak beste itzulpenei buruzkoak izan daitezke, baina japonierazko sorkuntza lanei buruzkoak ere bai, batzuetan), edo beste itzultzaile batzuekin mahai-inguru batean hitz egiteko, idazle bati elkarrizketa egiteko, eta abar. Hori, nik uste, itzultzailearen gaitasuna oso modu zabalean balioesten delako da: pentsatzen dute itzultzaile batek, japonierara ongi itzultzen badu eta gainera literatur lan onak aukeratzen baditu itzultzeko, baduela japonieraz ongi idazteko eta literatur kritika egiteko gaitasuna ere.

Antzeko zerbait gerta liteke beste literatura askotan ere, baina hemengo berezitasuna zera da: itzulpengintzak sorkuntzarekin eta kritikarekin duen harreman estua. Argi dago itzultzaileen iritziak oso kontuan hartzen direla hemengo kritikan eta sorkuntzan. Izan ere, hemengo idazle batzuei asko gustatzen zaie itzultzaileekin hitz egitea, kanpoko literaturetan zer joera eta nobedade dauden ezagutu nahi dutelako, antza.

Niri dagokidanez, batez ere saria irabazi eta gero, lan eskaintza pila bat ari zaizkit iristen. Haien artean aipatuko nituzke, beste itzulpen lan batzuk argitaratzeko eskaintzez gainera, saiakerak idazteko proposamen ugari, eta beste itzultzaile batekiko eta idazle batekiko mahai-inguru bat. Ematen du hemen, Japonian, itzultzaile soil bat

baino gehiago izateko eskatzen digutela, eta, nire ustez, hori ondo dago neurri batean. Modu horretako lanek ikuspegi zabalago bat edukitzen laguntzen dizute, normalean kontaktua izaten duzun hizkuntzatik eta literaturatik haratago, eta aberasten ditu zure itzulpenak ere. Baina onartu beharra dago nahiko zaila ere badela horrelako lan eskaintza edo eskaera guztiei erantzutea.

ELI: Lan eskaintza ugari izan dituzu, hortaz. Badirudi zure lana eta zure burua promozionatzeko bidea eman dizula.

NAMI: Nolabait, sariaren ondotik, jakin-min handia sortu da Uriberen lanaren eta nire jardunaren inguruan. Orduan, niri tokatzen zait jakin-min horri erantzuteko lan guztia. Ahal dudan neurrian saiatzen ari naiz eskaera horri erantzuten, prentsatik proposatzen dizkidaten elkarrizketetan galderei erantzunez, artikulua idatziz, eta behar izanez gero jendaurrean hitz eginez. Nahiko lan nekagarria da, baina, neuk ere nahi dudanez nire itzulpenak irakurriak izatea, eta gainera argitaletxeari eta idazleari ere onura egiten badie, hori guztia onartu beharko dut. Dena dela, zinez eskertzekoa da sariaren eraginez hainbeste jakin-min sortu izana euskararen eta euskal literaturaren inguruan, lehen pentsaezina baitzen horrelakorik gertatzea.

ELI: Emaguzu Japoniako literatur sistemaren berri, mesedez. Hau da, zer-nolako literatur lanak dira nagusi merkatuan, generoari dagokionez? Zer jasotzen da beste literaturetatik? Irekitasunik ba al du Japoniako literaturak erdaretako lanak jasotzeko? Eta hizkuntza gutxituetakoak jasotzeko?

NAMI: Hasteko, zure azken galderari erantzunez, esango nuke baietz. Aipatutako sariak erakutsi diguna horixe izan da, hain zuzen ere: beste literaturak jasotzeko irekitasuna, batez ere hizkuntza txiki eta gutxituetakoak. Aurreko (eta lehenengo, aurtengoa bigarren edizioa izanik) edizioan, txekierazko lan batek eta koreerazko beste batek irabazi zuten. Eta, oraingoan, euskarazko nobela batek eta kreolerak presentzia nabarmena duen frantsesez idatzirikoa lan batek. Sariaren inguruan agertutako artikulua guztietan irakurri dut *hizkuntza gutxituen garaipena* izan dela aurtengoa, eta hori oso deigarria egin zait, Japoniako itzulpen gintzan ingelesak duen zentraltasuna kontuan hartuta.

Hemen, beste leku askotan bezala, ingelesezko literaturaren zentraltasuna ia erabateko bihurtu da azken hamarkadetan, frantsesa, alemana, errusiera eta halako literatur hizkuntza nagusiak atzean utzita, batzuei gehiegizkoa iruditzeraino. Eta, orain, beharbada jendeak aniztasun gehiago nahi du itzulitako liburuak aukeratzeko orduan, eta konturatzen hasi da hainbat ahalegin egiten ari direla hizkuntza eta kultura ez hain ezagunetatik literatur lanak ekartzeko. Uste dut horixe izan dela saria sortu izanaren arrazoietako bat, baita sariak irakurleengan izandako harrera beroaren arrazoa ere.

Bestalde, aipatu beharko nuke literatura itzuliaren irakurleen kopurua 3.000 ingurukoa dela Japonian. Oso gutxi, 120 milioiko biztanlegoa duen herrialdea izanik, baina hor dago hemengo literatur itzulpenaren jasotzaileen muina, eta irakurle amorratuak dira. Beraz, itzulitako lan bat 3.000 aletik gora saltzen denean, esan genezake nahiko

harrera ona izan duela. Adibidez, Kirmen Uriberen lehenengo nobelak, *Bilbao-New York-Bilbao*-k, ia 2.500 aleko salmenta izan du orain arte; eta, *Mussche*-ren kasuan, 2.300 ale saldu ziren saria irabazi baino lehen, eta, gero, beste 1.200. Beraz, esango nuke nahiko salmenta ona izan dutela bi-biek.

Hemengo literatur merkatuari dagokionez, modu orokorrean esanda, bitan banatzen da literatur ekoizpena. Alde batetik, badago literalki *literatura purua* deritzona, hau da, goi-literatura; eta, bestetik, *entretanimenduzkoa*, literatura komertziala. Eta bakoitzak baditu genero eta azpigenero ugari, eta idazleak eta irakurleak nahiko sailkatuta edo zatituta daude generoaren arabera. Hemen gehien irakurtzen direnak *light novels* (eleberri arinak, batez ere gazteentzat irakurtzeko errazak direnak) eta *mystery novels* (literatura beltza edo intrigazkoa) dira, edo bestelako *literatura de género* delakoak (nobela historikoak, amodiozkoak...). Literatura fantastikoak eta zientzia-fikzioak ere garrantzi handia dute. Esaten da *literatura purua* beheraka doala *entretanimenduzkoaren* arrakastaren aurrean, beste leku askotan bezala. Idazle kopuruari dagokionez, datu bat jartzearen, Japoniako Idazleen Elkarteak 2.357 bazkide ditu. Baina uste dut askoz gehiago egongo direla.

ELI: Iruditzen zaizu hemen, Euskal Herrian, edo, oro har, Europa mailan, Japoniako literaturaren berri nahikoa badugula? Edo topikoak dira nagusi?

NAMI: Azken urteotan, Japoniako literaturaren itzulpen asko agertu dira Espainian. Baina, esaterako, Frantzian argitaratutakoekin alderatuta, iruditzen zait oso exotizatuta

daudela. Portadak ikustearekin nahikoa da horretaz jabetzeko: etxe barruan emakume bat kimonoz jantzita, ile beltz-beltz eta luzea luzitzen... Afrikako literatur lanen azalean, sabana eta eguzki gorri-gorria agertzen dira beti, eta antzekoa gertatzen zaio Japoniako literaturari ere. Eta, gainera, ematen du literatura aurremodernoa eta modernizazio garaikoa itzultzeari ematen zaiola lehentasuna, literatura garaikidea itzultzeari baino (Haruki Murakamirenak ez badira, noski), aspalditik Mendebaldean hain zabalduta dagoen Japonia *milenario eta misterio*sua-ren ideari atxikirik.

Horrekin konparatuta, Frantziako egoera askoz hobea dela iruditzen zait. Pentsa, Patrick Honnoré itzultzaileak, aurtengo Itzulpen Sariaren irabazleetakoa batek, 100 liburu baino gehiago itzuli ditu japonieratik frantsesera, eta gaur egungo idazleen lanak dira gehienak. Esan gabe doa alde handia dagoela Espainian itzultitako Japoniako literatura irakurriz erdiesten den ideien eta Frantziakoaren artean. Nik gomendatuko nizuke frantsesera itzultitako liburuak kontuan hartzeko japonieratik euskarara ekartzeko obrak hautatzerakoan, eta ez Espainian argitaratutakoak.

Euskarara ekarritakoei dagokienez, esan beharko nuke oso gutxi direla. Baina, egia esan, ez dakit Japoniako literaturarekiko jakin-minik dagoen ere...

ELI: Japonieratik euskarara itzulirik, 7 lan ditugu guztira. Honako hauek dira: Yukio Mishimaren *Arratsaldeko atoiuntzia* (Hiromi Yoshidak itzulia), Michio Takeyamaren *Birmaniako harpa* (Patxi Ezkiagak euskaratua), Haruki Murakamiren *Gauaren*

sakonean (Ibon Uribarrik ekarria), Amparo Takahashiren *Japoniako ipuin eta kondairak* (Jose Antonio Sarasolak itzulia), Noriko Matsuiren *Kamishibaia antzezteko gida* (Josu Jimenez Maiak euskaratua), Yasunari Kawabataren *Loti ederrak* (Ibon Uribarrik euskaratua) eta Kyoichi Katayamaren *Maitasunezko oihua, munduaren erdian* (Inma Erreak eta Keiko Suzukik ekarria).

Zer beste lan ekarri beharko genuke euskarara?

NAMI: Zerrenda hori ikusita, argi dagoena da oso ekimen anekdotikoak izan direla orain arte Japoniako literaturatik itzultitako lanak: gutxi izateaz gainera, ez da jarraikortasunik sumatzen. Behintzat, poztu beharko nuke badirelako japonieratik euskarara literatura itzultzeko gai diren pertsona batzuk. Arestian esan bezala, itzultzaierik ez bada ez baitago itzulpenik.

Kamishibaiaarena alde batera utzita (irudiak baliatuz umeei ipuinak kontatzeko metodoaren gida bat baita), baditugu, alde batetik, XX. mendeko klasiko batzuk (Mishima eta Kawabata, Mendebaldean gehien preziatzen diren autoreak), eta, bestetik, gaur egungo lan pare bat (Murakamiarena eta Katayamarena, biak best-sellerrak). Amparo Takahashirena ez nuen ezagutzen, baina bistakoa da jatorrizko testua gaztelaniazkoa dela. *Birmaniako harpari* dagokionez, gerraosteko haurrentzako liburu bat da, eta, oso ezaguna bada ere, egia esan ez dakit zer irizpidegatik itzuli zen; euskarara ekarritako liburu bakanetako bat izanda, gainera (akaso zinemara ekarri zutelako?).

Baina, noski, itzultzaile bakoitzak baditu bere asmo, gustu, baldintza eta irizpide per-

tsionalak, eta horiek markatzen dute itzulgaien hautaketa. Orduan, galdetzen diot neure buruari: nolakoak izan daitezke, eta izan beharko lukete, Japonieratik euskarara itzultzeko literatur lanak aukeratzeko irizpideak? Modu orokorrean esanda, uste dut bi ikuspegi daudela: bata, jatorrizko kulturaren oinarritua, eta bestea, xede kulturari begirakoa. Itzulpen bat jatorrizko kulturatik bultzatzen denean, literatur lan batek kultura horretan duen garrantzia izango da irizpide nagusia. Eta, xede kulturari begira itzulgai bat hautatzen denean, zer oihartzun izango duen xede hizkuntzan eta literaturan. Bi biak kontuan hartu behar dira, jakina, baina iruditzen zait askotan bigarrena ez dela behar bezala kontuan hartzen.

Nire uste apalean, itzulpen baten garrantzia bertako sorkuntzarekiko loturaren arabera neurtzen da batez ere. Jakina denez, Polisistemen teoria ikasitakook badakigu literatura itzulia xede kulturaren parte bihurtzen dela eta, nahiz eta sistema-egituraren marjinala izan, modu batean edo bestean eragiten diola bertako literaturari, eta batzuetan aldaketa sorgune ere bihurtzen dela. Edozein kulturatan, literatura itzuliaren irakurle goa oso mugatua da, baina irakurle horietako zati garrantzitsu bat idazleek osatzen dute maiz, eta itzulpenetatik edaten dute beren lanak sortzeko. Horrela gauzatzen dira literaturen arteko elkarriketak, eta, dinamika hori literatura baten garapenean ezinbestekoa izateaz gainera, askotan hortik sortzen dira literatura historiaren obra inportanteenetakoak ere.

Uste dut euskal literaturan, orain dela ez asko, halako elkarriketak zeharka gertatzen zirela beti, aldameneko hizkuntza nagu-

sien bitartez. Baina euskararako itzulpenak —batez ere zuzenekoak— sustatuz, beste kulturekiko harreman propioak eta elkarrizketa berriak sor litezke. Edo, behintzat, hori gertatzea ideala izango da. Hala ere, horretarako, itzultzaileak oso ongi ezagutu beharko du zer idazten den jatorrizko literatura ez ezik baita xede literaturan ere, zer joera dagoen; eta buruan izan beharko du irakurle mota edo multzo jakin bat, itzultitako lana seguruenik interesatuko zaiona, liburu horrek xede kulturaren nolabaiteko oihartzuna lortzea nahi badu. Eta esan beharra dago hori oso zaila dela; ez da edonork egiteko moduko lana. Zorionez, Kirmen Uriberen lanak euskaratik japonierara ekarri izan dira ahal izan dit elkarrizketa interesgarri batzuk sortu direla hemengo irakurle eta idazleekiko, eta horrexegatik izan dute haren liburuek hainbesteko arrakasta, baina nik neuk ere ez dakit gauza bera eragin ahal ote dudan kontrako norabidean. Baina argi daukat bi literaturen arteko harremana ezin dela unilaterala izan, eta azkenaldian asko pentsatzen dut japonieratik euskararako itzulpenari buruz.

Bestalde, aipatutakoaren harira eta itzultzaile baten ikuspegitik, oso kontuan hartzekoa da nork irakurriko duen euskaratzen duzun liburu hori, zenbat lan eta denbora behar izan den itzultzeko eta kaleratzeko (baita dirua ere, noski), hutsaren hurrengo bihur ez dadin. Batez ere, jakinik oso mugatua dela euskarazko irakurlegoa (are gehiago literatura itzuliarena, esan gabe doa), zaila egiten zait irudikatzea, adibidez, Kyoichi Katayamaren liburuaren irakurle euskaldunak. Badakit oso asmo onarekin itzultitako liburu bat dela, amodiozko istorio ulergarri

batekin gaur egungo Japoniako kultura eta bizimodua literaturaren bitartez ezagutarazi nahi duen heinean. Baina zenbat irakurlek hartuko luke euskarara itzultitako literatura lan bat Japoniarekiko jakin-minagatik? Are gehiago kontuan izanda eleberri gisa kaskarra eta interes gutxikoa dela (Japonian sekulako arrakasta izan bazuen ere) eta erdarazko aukera askoz zabalagoa dela. Ez dakit. Dena dela, uste dut arrazoi horregatik ere oso funtsezkoa dela oso argi edukitzea itzulgaiak hautatzeko irizpideak.

Adibidez, honako irizpide hauek burutzen zaizkit:

Beste hizkuntza batean idatziriko literatura lan bat...

1. euskaraz egotea komeni izatea (erreferentziatzeko lanak, klasikoko);
2. euskal idazleentzat obra garrantzitsua izatea (adibide gertuena jartzeko, Méndez Ferrín);
3. euskaraz irakurtzeak beste kultura bat ezagutzeko balio izatea;
4. euskaratzea interesgarria izatea ariketa gisa (batez ere estilistikoki, baita euskaraz ez dauden genero, forma eta beste baliabideak inportatzeko ere);
5. euskara eta euskal kulturarekin harremanean jartzea interesgarria izatea (batez ere hizkuntza eta kultura gutxituetako literatura lanen kasuan. Inguruko hizkuntzetara itzuliak ez diren lanak badira, are garrantzitsuagoa izango da lan horiek euskaratzea).

Nire ustez, ikuspegi literariotik, aurreneko hirurak jarrera pasiboagoak dira, eta azken biak, aktiboagoak. Eta, aldi berean, esan

genezake aurreko biek iraganera begiratzen dutela batik bat, eta azkenekoak, orainera eta etorkizunera. Esango nuke lehenengoa Literatura Unibertsala bildumaren irizpide nagusia dela, eta bigarrena, Munduko Poesia Kaierak bildumarena (agian hor pixka bat sartzen dira laugarrena eta bosgarrena ere). Eta, hirugarrenari dagokionez, lehenago aipatu dudan arrazoiarengatik uste dut ez dela euskal itzulpengintzaren lehentasuna, ez behintzat bosgarrenarekin loturik ez badago. Japoniako literaturara bueltatuz, esango nuke interesgarria izan litekeela jarrerara aktiboak harturik idazle garaikideak euskarara ekartzea, euskaraz beste literatur erreferente bat eskainiz. Baina horrek inplikazio handia eskatzen dio itzultzaileari, bai jatorrizko literaturarekiko, bai xede kulturarekiko, eta ez da berehala egin daitekeelan bat.

Adibide batzuk jarriko ditut, gehiago ez luzatzearren, argi eta garbi utziz oso ikuspegi pertsonal batetik aipatzen ditudala. Badira azkenaldian japonieratik euskarara itzultzeko gogoia eman didaten literatur lan batzuk. Haietako bat Wen Yuju izeneko idazle gaztearen ipuin bat izan da, baina bera ez da japoniarra: Taiwanen (hau da, estaturik gabeko nazio batean) jaioa eta Tokion hazia da, eta japonieraz idazten du. Ipuinak taiwanerarekiko (edo taiwaneraren arrasto batzuekiko) enkontrua kontatzen du, non eta Tokion bertan. Ze, ez dakit badakizuen, Taiwan Japoniako kolonia izan zen gerra aurrean, eta, garai hartan, taiwandar guztiek japonieraz ikasi zuten eskolan (beraz, idazlearen aitona-amonen hizkuntzak taiwanera eta japoniera izan ziren), eta gazte askok To-

kiora jo zuten goi-mailako ikasketak egitera. Baina, gero, Txinako errepublikanoek Taiwanera ihes egin zutenetik, txinera bihurtu zen hango hizkuntza ofizial, eta taiwanera bazterrean geratu zen osterera ere (beraz, idazlearen gurasoen hizkuntza txineraren eta taiwaneraren arteko nahasketa bat da). Taiwango hizkuntzaren egoera konplexu hori ongi laburbiltzen da ipuinean, eta narratzaileak Tokion aurkitzen du taiwanera, bere ama-hizkuntza galdua, baita hizkuntza horrek eta beraren familiakoek jasandako historiaren gorabeherak ere. Oso istorio hunkigarria da, batez ere hizkuntza gutxituaren baten historia ezagutzen dugunontzat.

Beste bat da Toh EnJoe izeneko idazle ezagun baten zientzia-fikziozko poema bat. Ez dakit euskaraz inoiz horrelakorik idatzi ote den, baina interesgarria iruditu zitzaidan poema hori euskaraz jartzea, zientzia-fikziozkoa izateaz gainera oso baliabide berritzaile bat erabiltzen baitu formalki. Beno, burutazio batzuk besterik ez dira, baina esango nuke japonierazko literatur ekoizpenaren emaitzarik interesgarrienetakoak direla, ziurrenik, testu horiek. Japonierazko literatura (nahiago dut hala deitzea, zeren jada ez baitira japoniarrak bakarrik japonieraz idazten dutenak) nahiko egoera kurioso batean dago, batez ere 2011ko lurrikararen eta Fukushimako istripuen ondoren. Beraz, izen asko aipa nitzake, baina beste batean, agian. Bestalde, itzulgai errealistagoak izan litezke haur eta gazte literaturako lan batzuk. Iruditzen zait, Shin-chan eta Doraemon hain arrakastatsuak badira hango umeen artean, ongi legoakeela Japoniako literatura txikitatik ezagutzeko aukera ere izatea. Eta

Japoniako marrazki bizidunen jatorrizko bertsiok —hau da, *manga* edo komikiak— euskaratzea ere polita izan liteke. Shin-chan edo Doraemon ez ezik, Hayao Miyazakiren lanak, esaterako. Gainera, erdaraz ez badaude, oso hautaketa onak iruditzen zaizkit.

ELI: Nabari da, bai, asko hausnartu duzula japonieratik euskararako itzulpenaren inguruan, eta asko eskertzen dizut egin dizkiguzun gomendioak. Zurekin bat egiten dut itzulgaiak hautatzeko aipatu dituzun irizpideekin, eta bakoitzari une bakoitzean eta kultura bakoitzak eman behar dion lehentasun maila finkatzeko beharrarekin.

Bestalde, azken aldian, arduratuta gaude euskal literatura zabaltzarekin; bide berrien bila ari gara. Nire irudipena da, baina, ez zaigula hainbeste axola zer dakargun kanpotik. Ez dugula halako interesik jartzen. Zer iruditzen zaizu zuri?

NAMI: Egia esan, nik ere inpresio bera daukat. Azken batean, horixe da kontua: axola edo jakin-min eza. Ez dakit besteekiko joera orokorra ote den han, baina Japoniarekin sumatzen dudana da jakin-min eza eta ezjakintasuna. Bestela, Japoniako zerbait interesatzen zaienean, animazioak eta bideojokoak izaten dira, eta batez ere janaria; batzuetan, filmak ere bai, edo japoniarrok ere ezagutzen ez ditugun *ohitura* bitxiak, baina ez literatura. Baina, beno, hemen ere antzeko zerbait ikusten dut askotan Euskal Herriarekin: jendeari hango janaria eta futbola gustatzen zaizkio, baina zaletasun horiek nekez lotzen dira literaturarekin. Zer erremedio.

Euskal literaturarako hurbilpena

ELI: Has gaitezen hasieratik, zero urratsetik. Urteak daramatzazu euskara ikasten. Zerk bultzatu zintuen horretara? Zein izan da zure ikasketa prozesua?

NAMI: Hitz gutxitan esateko, Atxagak bultzatu ninduen euskara ikastera. Hobeto esanda, haren *Obabakoak* liburuak. Japonierara itzulita irakurri nuen lehenengo aldiz, itzulpena atera berri zenean, 2004an, uni-bertsitateko lehenengo ikasturtearen amaieran nengoela. Liburu hori hartu nuen, alde batetik, japonierara itzultako zernahi irakurtzen nuelako (txikitatik, literatura itzuliaren zalea izan naiz oso, baina, Japoniako iparraldeko bazter batetik Tokiora ikastera etortzarekin batera, izugarri zabaldu zitzaizkidan liburuen aukerak, eta ez nuen nobedade bat ere galdu nahi); eta, bestetik, Hispaniar Ikasketen ikasle izanik, banuelako euskararen berri, eskola batean edo bestean jasota. Atxagaren liburuak erabat liluratuta utzi ninduen: behin eta berriz irakurri nuen, eta ez ninduen aspertu. Aitzitik, sentitu nuen hor bazegoela zerbait, zerbait oso garrantzitsua izan zitekeena niretzat. Bide batez, azpimarratuko nuke liburuaren mundua ez zitzaidala batera arrotz suertatu; kontrakoa, oso gertuko iruditu zitzaidan; barne-barnekoa, gainera. Horregatik, zaila egiten zait oraindik ere *Obabakoak*-en nazioarteko harrera *exotizatzailea* azpimarratzen dutenen iritziak sinestea.

Uste dut beste edozein idazlerena izan zitekeela liburu hori, baina, kasualitatez, Atxagarena zen, jatorriz euskaraz idatzia, eta gaztelaniatik japonierara itzulia. Galdetu nion neure buruari zer esan nahi ote

zuen horrek, eta bolada luze batean pentsatzen jarraitu nuen liburuaz, ahaztu ezinik. Hurrengo ikasturtean erabaki nuen beste unibertsitate batean ematen zen euskara eskola batera joatea —Hiromi Yoshida zen irakaslea, eta, garai hartan, haren eskola hori zen Japonian euskara ikasteko aukera bakarra—, eta han entzun nion irakasleari *Obabakoak*-en jatorrizkoaren eta gaztelaniazko bertzioaren artean bazegoela alde handia. Informazio horrek bereziki piztu zidan jakin-mina. Bitxia da hau guztia: *Obabakoak* japonierara itzulita ez balego, ez nuke euskal literaturaren berririk izango; baina, justu, momentu horretan itzuli zen, eta itzulpen hori zeharkakoa izateagatik sortu zidan euskarazko jatorrizko testua ezagutzeko gogoia. Iruditzen zait hemen badagoela lezio bat: zeharkako itzulpena ere ez da guztiz baztertzekoa, zubigintza egiten baitu momentu jakin batzuetan; eta itzulpen batek, edonolako izanda ere, ez dio jatorrizko lanari indar guztia kentzen, lan hori benetan indartsua bada. Nik, behintzat, hala pentsatzen dut.

ELI: Bat nator diozunarekin. Zure kasuan, nabarmena da mundu berri bat ireki zitzazula zeharkako itzulpenari esker.

NAMI: Bai, horixe gertatu zitzaidan, eta horrek zer pentsatu handia ematen dit: hau da, itzulita ez badago, ez dago ezer jakiterik euskal literaturari buruz kanpotik, baina, itzultzen denean ere (dela erdaratik, dela euskaratik), iruditzen zait onuragarria izan litekeela azpimarratzea badagoela euskaraz irakurriz bakarrik jaso daitezkeen hainbat gauza. Eta esango nuke euskaratik itzultzen dugunok badugula abantaila bat hori esateko, baina, hori bai, betiere ira-

kurleak euskararen mundura gonbidatuz. Sarrionandiari irakurri nion ongi dagoela euskal literatura beste hizkuntzetara itzul-tzea, beharrezkoa dela, baina, euskarazko kalitatezko lan guztiak gaztelaniara itzuliko balira berehala, ez dakiela euskal literaturaren onerako ala kalterako izango zen; eta ohartarazten digu okerra dela euskal literaturaren normalizazioarekin batera nagusitu den *itzulgarritasunaren printzipioa*, hau da, dena itzul daitekeela sinestea edo sinestaraztea, literatura, berez, itzuli ezinaren ertzean sortzen den zerbait izanik, gainera (*Moroak gara beheraino artean?*). Horrekin, zera esan nahi dut, ez duela inork euskara ikasteko beharrik sentituko dena erdaraz irakur badaiteke. Baina literatur lan on bat motibo handia izan daiteke jatorrizko hizkuntza ikasteko, eta itzulpenak, zeharkakoa izanda ere, erakuts dezake hor badagoela literatura ezezagun bat irakurria izatea merezi duena. Euskaratik zuzenean itzultzearen auzia, ordea, uste dut beste zerbait izango dela, edo izan beharko dela.

Benoa, harira bueltatuz, ni horrela hasi nintzen euskara ikasten, *Obabakoak* jatorriz idatzi zen hizkuntzan bertan irakurri nahian. Orain ere gogoan daukat Donostian izan nuen irakasle bati hori adierazi nionekoa, aho zabalik geratu baitzen... Esan bezala, Japonian hasi nintzen ikasten, baina oso oinarrizko ikastaro bat zen. Orduan aurkitu nuen USAC-ek Donostian antolatzen zuen programa bat, eta hara abiatu nintzen, 20 urterekin. Programa hori gaztelania ikasteko zen funtsean, baina bazegoen euskara ikasteko aukera ere, ikastaro trinko batean. Han, urtebete eman nuen: lehen lauhilekoan, gramatika landu nuen, beste ikasle

batzuekin batera; bigarrenean, eskola partikular bilakatu zen eskola hura, eta, mintzamenaren ez ezik, idazmenaren eta irakurmenaren ere landu ahal izan nituen; eta euskaltegi batean ere ibili nintzen.

Urtebete igaro ostean, dagoeneko banekukan euskaraz (ahoz eta idatziz) nolabait neure burua azaltzeko eta elkarrizketa errazak izateko maila, baina hori ez zen baten nahikoa literatura irakurtzeko, batez ere hiztegia falta zitzaidalako. Beraz, Japoniara itzuli nintzenean, neure kabuz jarraitu nuen ikasten, gehienbat Atxaga irakurtzen, gaztelaniako bertsiorekin konparatuz. Hasieran, izugarri zaila zen *Obabakoak* euskaraz irakurtzea: deszifratze bat bezalakoa zen nire hasierako irakurketa, baina gozamen hutsa ere bai, uste baino askoz obra aberatsagoa aurkitu bainuen jatorrizko hizkuntzan. Hain zuzen ere, esperientzia horretatik sortu zen urte batzuk geroago nire ikerketa proiektua, euskarazko sorkuntzaren eta autoitzulpenaren arteko harremanari buruzkoa.

ELI: Literatura itzultzeko, ezagutza sakonagoa behar dela diozu, hortaz.

NAMI: Bai, zalantzarik gabe, baina denbora eta esfortzu handia behar da, hizkuntza jakiteaz gain literaturari buruzko ezagutza sakontzen joateko. Izan ere, urteak behar izan nituen literatur lanak euskaraz zuzenean irakurtzeko gai izateko eta, aldi berean, euskal literaturaren historia eta beste autoreak ezagutzeko. Tarte horretan, pixkanaka, gaztelaniatik euskarara pasatu nintzen, bai irakurketan, hizketan eta idazketan, eta bai itzulpenean. Hizkuntza aldaketa horretan, uste dut erabakigarria izan zela Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* euskara-

tik japonierara itzuli izana. 2012an izan zen hori, eta doktorego ikasketetan hasi berria nintzen Japonian.

Geroxeago, alde batetik Atxagari buruzko doktorego tesia prestatzeko eta bestetik euskal literaturaren itzulpenetan jarraitzeko, ahozko euskara eta euskal literaturaren corpus zabalagoa gertutik ezagutzeko beharra sentitu nuen, eta erabaki nuen Euskal Herrira bueltatzea. Horrela, 2013-2014 ikasturtea han igaro nuen; gradu osteko mintegi batzuetan parte hartu nuen EHUko Letren Fakultatean, eta euskaltegi batera joan nintzen, berriz. Berriro ere, Donostian bizi izan nintzen, baina ia euskara hutsez (aurreko egonaldian, euskara eskolatik at gaztelaniak bizi nintzen eta). Orduan konturatu nintzen hor bazegoela lehen ia ikusi ere egiten ez nuen beste mundu bat, hau da, euskaldunena. Hortxe bertan, espazio berean, erdaldunentzat ia ikusezin, baina kulturalki oso dinamikoa zena: behin konturatuz gero, ematen zuen beti zerbait gertatzen zela hantemenka: liburu aurkezpenak, hitzaldiak, kontzertuak, jaialdiak...

Egonaldi hartan, beste esperientzia interesgarri batzuk ere izan nituen. Alde batetik, bitxia da hau, gaztelaniarekiko harremana zaildu egin zitzaidan: euskararen murgilduz joan ahala, gaztelaniak hitz egitea kostatzen hasi zitzaidan. Traba bat sentitzen nuen euskaratik gaztelaniara pasatu behar nuenean, beharbada psikikoki, baina, aldi berean, baita bi hizkuntza hain desberdinen artean etengabe aldatu beharragatik ere, batetik bestera eta alderantziz. Horrexegatik, harrigarri iruditu zitzaidan hango gazte zein nagusien kode-aldaketa etengabea (normaltasun osoarekin, gainera!), eta batez ere gaz-

teen hizkera hori, *euskañola* esaten zaiona. Beharbada, hizkuntza gutxitu baten egoeraren edo erabileraren errealitate horretara ohitzea izan da niretzat zailtasunik handienetakoa, euskararen aditz-sistema ikastearen hurrengoa.

Bestalde, euskaltegian izandako esperientzia ere ezin dut ahaztu. Lehen egonaldian, maila baxuko ikasgela batean egokitu izanagatik segur aski, triste samarra izan zen giroa: frustratuta ikusten nuen jendea, beti erdaraz kexatzen, euskara ikasten urteak eman eta ezin aurrera egin, eta abar. Baina, gero, maila aurreratukoan, ikasgelako ki-deek gogoz ekiten zioten ikasteari, eta giro animatuago batean ikasi ahal izan nuen. Baina baziren pertsona batzuk hitz egiteko zailtasun izugarria zutenak, txikitan inguru euskaldun batean hazi eta euskara oso barneratua izanda ere. Behin, haietako batek esan zidan inbidia zidala arazo handirik gabe euskaraz egin nezakeelako, nahiz eta hangoa ez izan... Bere ama-hizkuntza izan zitekeen gaudioa zuen jende hori ezagutzeak asko eman zidan pentsatzeko, hitzun natiboak zein berriak ezagutzearekin batera: pertsona batek hizkuntz(ar)ekin duen harremanari buruz, euskaraz bizitzea eta idazteari buruz, egoera diglosiko batean sortzen den literaturari buruz... Uste dut euskal munduarekin izandako kontaktu zuzenak —euskaraz irakurtzeaz gainera— izugarri markatu duela nire ikuspegia, eta horrek nolabait eragin didala literaturaz hausnartzeko moduan ere. Eta oso emankorra suertatu zait hori guztia, bai ikerketan, bai itzulpengintzan.

ELI: Ikusten dugu urteak daramatzazula euskara ikasten, bai Japonian, bai Euskal

Herrian. Eta nabarmena da euskara ikastearekin batera euskal kultura gertutik ezagutu duzula denbora horretan guztian, eta esango nuke, gainera, doktorego ikasketak direla eta, euskal literaturaren ezagutza sakona duzula.

NAMI: Sakona, ez dakit, oraindik irakurtzeko asko daukat eta, oraindik irakurtzeke ditudan liburu eta autore ugari... Baina ziur nago euskara ikastea ezinbestekoa izan dela euskal literatura eta kultura orokorra ezagutzeko. Eta beti saiatu izan naiz ulertzen, oso zaila bada ere, euskaraz idatzitakoak ez ezik euskal literatura sortzen den testuinguru soziala ere. Ikerketetan, noski, baina baita itzulpengintzan ari naizenean ere, oso kontuan edukitzen dut testuinguru hori, eta beti saiatzen naiz irakurleei azaltzen ahalik eta modu egokien eta ulergarrienean, oso zaila bada ere.

ELI: Zuk gaztelania ikasi zenuen unibertsi-tatean, eta horrek ireki zizkizun euskararako ateak. Normalean, euskara ikasten duzuen atzerriko itzultzaileok bide horretatik heldu ohi zarete euskal literaturara. Zenbateraino baldintzatzen du gaztelaniaren ezagutza sakon horrek?

NAMI: Iruditzen zait gaztelaniaren ezagutzak hiru momentutan baldintzatuko duela: itzulgaia hautatzeko orduan, itzulpen prozesuan eta itzulitako lana aurkeztean. Esan bezala, azken urteotan, gaztelaniatik euskarara pasatu naiz, eta tarte horretan ikusi ahal izan dut nola eragiten duen hizkuntza horiekiko harremanak itzultzailearen jarre-ran eta itzulpenaren berean.

Itzulgaia hautatzean, itzultzailea beti saiatzen bada ere bere kabuz itzulgaiak bilatzen liburu mordo bat irakurriz, beste informazio iturri batzuk ere hartzen ditu kontuan. Euskararen ezagutza sakona izanez gero, euskaraz zuzenean irakurriko ditu liburuak, eta euskal prentsatik eta kritikatik jasoko du informazioa, edo lagunen bitartez: zer liburu atera den, zer-nolako harrera izan duen, zer sari jaso duen Euskal Herrian, zer liburuk izan duen arrakasta Durangoko Azokan, eta abar. Baina, horretara ohituta ez dagoenean, edo beraren euskarazko irakurmena mugatuta dagoenean eta batez ere dagoeneko gaztelaniatik itzultzen ibilbide bat baldin badu, informazio guztia gaztelaniaren bitartez iritsiko zaio, askotarikoko bideetatik (Espainiako prentsa, aldizkariak, blogak, SNSak, argialetxeak, literatur agentziak...), eta euskal liburuek gaztelaniaz izandako kritikak eta harrerak baldintzatuko dute itzultzailearen hautaketa. Eta hori normala da, gaztelaniazko literatur informazioaren zirkuitu horretan jada sartuta egonda. Hortik pixka bat urruntzeko eta euskal literaturak gaztelaniara itzulia izan baino lehen jatorrizko kulturen beste bizitza bat baduela jabetzeko, iruditzen zait itzultzaileak gaitasun orekatu bat lortu beharko duela bi hizkuntzetan (gauza bera esango nuke itzulpen prozesuan eta itzulitako liburuen aurkezpenean ere). Baina oreka hori, jakina, ez da berehala lortzen. Euskara ikasteaz gain, bere kabuz irakurriz, itzuliz eta euskarazko erreferentziak zabalduz lortu beharreko zerbait izango da.

Nire kasua azalduko dut, adierazgarria izango delakoan. Nik euskaratik egin nuen lehenengo itzulpena Kirmen Uriberen

Bilbao-New York Bilbao-rena izan zen. Hain zuzen ere, Espainiako Sari Nazionalaren albeste ikusi eta gero irakurri nuen Uriberen nobela hori lehenengo aldiz, eta gaztelaniaz, gainera. Alde batetik, orain badira euskarazko liburuak kanpotik erraz eskuratzeko modu batzuk (Amazon.es, liburu elektronikoak...), baina, orduan, 2009an, askoz errazagoa, azkarragoa eta gainera merkeagoa zen gaztelaniazko edizioa erostea euskarazkoa baino. Eta, bestetik, dagoeneko euskara hutsez irakurtzeko gai izanda ere, gaztelaniaz askoz errazago eta azkarrago irakurtzen nuen, eta uste dut oraindik nire informazio iturrien artean gaztelaniazkoak gailentzen direla.

Hasieran, ez nuen nobela itzultzeko asmoetatik irakurri. Baina, euskara ikasteko erabakian Atxagaren *Obabakoak*-ekin gertatu bezala, kasualitate batzuek bultzatu ninduten liburu hori itzultzerara. Eta, argialetxeak *BNB* itzultzeko eskatu zidanean, neure buruari galdetu nion: baina zer hizkuntzatatik itzuliko dut, gaztelaniatik ala euskaratik? Niretzat, argi zegoen euskaratik itzultzea zela desiragarriena, baina artean ez nengoan erabat ziur nire euskararen mailaz; eta, gainera, banekien gaztelaniatik itzultzea ere zilegi zela, ez Sari Nazionalaren irabazlea zelako, baizik eta jatorrizkoaren eta gaztelaniazko bertsioren artean nahiko alde nabarmena zegoelako (gaztelaniazkoa ez da autoitzulpena, baina idazleak berak errebisatua da, eta zati asko moldatuta daude). Buelta batzuk eman eta gero, azkenean, euskaratik itzultzea erabaki nuen; hori bai, gaztelaniazkoa ere kontuan hartuta. Alde batetik, ez zen nobela luze-luzea, eta, idazkera ere oso soila zenez, iruditu zitzaidan ariketa ona izango

zela niretzat euskaratik itzultzea. Bestetik, gaztelaniara egindako itzulpena lagungarri izan zitekeen: bertsio zaindua iruditu zitzaidan, eta konponbide asko eskaintzen zuen beste hizkuntza batean jartzeko.

Beraz, horrela ekin nion Uriberen nobela itzultzeari, jatorrizkoa eta gaztelaniazko bertsioa aldi berean aurrean nituela. Baina, gero, beste arazo batzuk azaldu zitzaizkidan: gaztelaniazko bertsioan, nobelaren bigarren erdia oso aldatuta zegoen, eta ez nekien bi hizkuntzetako zein hartu iturburu gisa. Orduan, Uribek liburuaren bigarren erdiaren beste bertsio bat bidali zidan: euskarazkoa, baina gaztelaniaz egindako zuzenketak eta aldaketak kontuan hartzen zituen. «Vulgata» deitzen zion, eta esan zidan Elizabeth Macklin ingeleserako itzultzailearentzat egindako bertsio berezia zela, euskaratik itzuli nahi baitzuen itzultzaile estatubatuarak.

Horrela, hirugarren bertsio bat agertu zitzaidan, eta, nobelaren erditik aurrera, bertsio hori iturburu testu gisa harturik hasi nintzen itzultzen. Baina, ongi irakurrita, konturatu nintzen bertsio hori ere, gaztelaniazkoarekin alderatuta, ez zela berdin-berdina, beste aldaketa batzuk ere bai baitzuten! Batez ere liburuaren pasarte erabakigarrienetako batean, narratzaileak, New Yorkeko museo batean Belliniren obra baten aurrean dagoelarik, bere nobelaren mekanismoaz hausnartzen duen pasarte horretan. Orduan, zer egin nuen nik? Bada, hiru bertsioak ongi aztertu, eta iruditu zitzaidan bazirela jatorrizkoan esaldi gogoangarri batzuk, eta beste batzuk hobeak zirela gaztelaniazkoan, beste batzuk Vulgatan... Azkenean, horiek guztiak kontuan hartuta

berrosatu nuen hainbat pasarte. Batzuek esango dute itzultzaileak ez duela horrelakorik egin behar, jatorrizko testua ukiezina dela edo horrelako zerbait. Baina nik uste —eta duela gutxi hemengo beste itzultzaile batzuei ere entzun diet iritzi bera— hori zilegi dela. Topikoa da itzulpenean beti galtzen dela, itzultzaileak ezin duela jatorrizkoan esaten den guztia beste hizkuntza batean transmititu. Baina, azken finean, idazleak berak ere adierazi ote du bere buruan daukan guztia jatorrizko lanean? Ez. Orduan, itzultzaileak, egilearen asmoa ongi ulertuz gero, pixka bat bideratu ahal izango du jatorrizko testua, xede hizkuntzan ongi funtziona dezan. Eta hori ez da jatorrizkoarekiko *traizioa*. Obraren potentzia zabaltzen du, eta, Borgesek ere bazioen bezala, ez dago «testu definitibo»rik, bertsioak baizik, eta, bertsioen artean, badira hobeak eta okerragoak. Orduan, itzultzailearen lana xede hizkuntzan ahalik eta bertsiorik onena lortzea izango da, esku artean dauzkan ahalbide guztiak baliatuz. Eta uste dut ahal nuen guztia egin nuela nobela hori japonieraz jartzen; hori bai, momentu hartan ahal nuen guztia.

Uriberen bigarren nobelaren itzulpen prozesua oso bestelakoa izan zen. Jatorrizkoa argitaratu zenean, berehala irakurri nuen; euskaraz, noski, idazleak berak bidali baitzidan. Gero, gaztelaniara itzuli zenean ere irakurri nuen, baina, aurrekoan ez bezala, ez zitzaidan kontuan hartzekoa iruditu euskaratik itzultzeko orduan. Gaztelaniarako itzulpen horretan, egileak ez zuen eskurik sartzen, eta, batzuetan, jatorrizkoa irakurtzean zalantzarik sortu zitzaidanean kontsultatu banuen ere, ez nuen argibide as-

korik aurkitu. Beraz, kasu horretan, euskarazkoa izan zen nire itzulpenaren iturburu testu bakarra. Hala ere, itzulitako testua zuzentzean, bai, baliatu nuen gaztelaniazkoa. Eta, liburuaren hitz-atzea idazteko (hemen badago itzultzaileak itzulitako lanaren hitz-atzea idazteko ohitura, beste kultura batzuetan hitzaurre edo ohar gisa egiten dena), eleberriaren inguruan euskaraz argitaratuta zeuden erreportajeak eta egileari egindako elkarrizketak ez ezik, bereziki kontuan hartu nuen Uribek berak bere liburuari buruz gaztelaniaz idatzitako artikulua bat, iruditu baitzitzaidan oso ongi adierazten zuela nobelaren nondik norakoa.

ELI: Orain arte, itzulgaiaren hautaketari eta itzulpen prozesuari buruz hitz egin dugu. Hel diezaiogun orain emaitzari, itzulpenari. Zer motatako edizioa da?

NAMI: Hemen —edo, behintzat, nire kasuan—, aipatutako hitz-atzea idazteaz gain, itzultzaileok badugu edizioaren xehetasunetan iritziak emateko aukera: hau da, izenburuarekin hasi, eta azalaren irudia, kontrazaleko testua, liburu gaineko zintan jartzeko promoziorako hitzak eta abar erabakitzeko. Beharbada, txikikeriak irudituko zaizkizue, baina oso garrantzitsuak dira elementu paratestual horiek, beste milaka libururen artean nabarmentzeko eta irakurleak harrapatzeko. Eta, gainera, liburuaren irudia ere baldintzatzen du: itzulitako lana testuinguru jakin batean kokatzen du, eta liburu-dendakoek zein irakurle askok irudi horren arabera erabaki ohi duete erosi ala ez.

Ahalik eta adibide argiena jartzearen, hor erabakitzen da, esaterako, liburuaren

sailkapena, eta, ondorioz, liburu-dendetan izango duen kokapena. Nola sailkatuko da euskaraz idatzitako nobela bat beste hizkuntza batera itzulitakoan? Euskal literatura, espainiar/frantziar literatura, Europako literatura, edo *beste literaturak*? Literatura garaikide gisa sailkatuko da, ala historia, turismoa edo beste gairen batean? Posibilitate asko dago. Nire kasuan, *euskal* eta *literatura garaikide* izatea azpimarratu nuen, eta hori dudarik gabekoa irudituko zaizue beharbada, baina ez da hala, inondik ere, beste kultura batean.

Esan nahi dut, hemen, Japonian behintzat, *Euskal Herria* aipatu eta jendeak Espainiarekin lotzen duela berehala. Badirudi hori joera orokorra dela: esaterako, *Linguae Vasconum Primitiae*-ren japonierazko edizioa argitaratu zenean, argitaletxeak *Espainiako literatura eta historia* atalean sailkatu zuten liburua, itzultzaileen (euskararen eza gutza sakona zutenen eta euskaratik itzuli zutenen) protestak protesta. Baina sailkapen hori ez da posible ikuspegi orotatik, ezta? Txinan, entzun dudana arabera, gaztelaniatik itzuli zuten *Mussche*; azalean, gaztelaniaz agertzen zen izenburua, ez euskaraz, eta espainiar literaturaren nobedade bat balitz bezala aurkeztu zuten. Horrelako gauzak gertatzen dira, eta, baldintzak baldintza, itzultzaileak saiatu behar du itzulitako lana xede kultural ahalik eta modu egokienean aurkez dadin.

Eta iruditzen zait horretan asko baldintzatzen duela itzultzailearen ikuspegiak. Nire uste apalean, gaztelaniaren bitartez euskal literaturara heltzeak gehien baldintzatzen duena horixe da: euskal literaturarekiko ikuspegia. Jakina, gaztelaniaz irakurrita

(edo gaztelaniaren bitartez begiratuta), euskal literatura Espainiako literaturaren azpistemetako bat da, literatura katalanarekin eta galegoarekin batera. Eta *País Vasco*-k ez du esan nahi *Euskal Herria*, baizik eta *Euskal Autonomia Erkidegoa*. Hori erreferentzia geografiko gisa harturik, euskal literaturan ez da sartuko ez idazle nafarrik ez Iparraldekorik, edo, bestela, espainiar bihurtzen dira guzti-guztiak. Ikuspegi horrekin, iruditzen zait, euskal idazle bat euskaratik itzulita ere *euskaraz idazten duen Espainiako idazle* gisa geratuko dela xede kulturalan. Orduan, ez dakit zer alde dagoen euskaratik itzultzearen eta gaztelaniatik itzultzearen artean.

ELI: Bai, zuzeneko itzulpena desiragarriagoa dela esaten dugunean, hausnartu behar-ko genuke zein diren itzulpen-bide horren abantailak.

NAMI: Horixe da. Niretzat, behintzat, gaztelaniatik euskarara pasatu izanak ikuspegi aldaketa bat ekarri zuen. Eta uste dut beste ikuspegi bat zabalduko dela arestian aipatu dudan erreferentzia geografikoa alde batera utzi eta euskara ardatz izanez gero; hizkuntza hori estatu gabekoa izanda, gainera. Ez naiz iberiar ikerketen paradigmaren kontrakoa, baina ez dago ikuspegia Espainiako estatura edo Iberiar Penintsulara mugatu beharrik ere. Izan ere, munduan badira beste hizkuntza eta literatura ugari, txikiak, gutxiak, *menor* edo dena delakoak, alderdi askotan nahiko antzekoak baina historia eta egoera desberdinetan aurkitzen direnak. Gainera, xede literatura eta kultura bakoi-tzak bere erreferentziak dituenaz literatur lan bat kanpotik jasotzerakoan, itzultzailea bera aurkituz eta eraikiz joan daiteke, nik

uste, euskarazko literatur lan bat koka litekeen testuinguru lokala zein globala. Eta, horrela, uste dut itzulitako lanak proiektzio zabalagoa izango duela beste jatorri batzuetako literatur lanen parean, soilik *euskal literatura* edo *euskaraz idatzitako Espainiako literatura* gisa katalogatuta baino. Esan gabe doa, itzulpen lan bat aurkeztean, kontestualizazioa izugarri garrantzitsua da.

Uriberen lanen harrera japonian

ELI: Testuinguruari buruz egin duzun hausnarketa hori oso interesgarria iruditzen zait. Zuk itzulpenak euskaratik egin dituzula ikusirik, zer testuingurutan aurkeztu zenituen?

NAMI: Uriberen lanetan, batez ere *BNB*-ren kasuan, uste dut argitaletxearen profila eta liburua agertu zen bildumaren izaera izan zirela erabakigarrienak. Hakuishia argitaltxea ez da Japoniako handienetakoa, baina bai ospetsuenetakoa, eta oso ezaguna da hemengo irakurleen artean, batez ere literatura itzuliaren katalogoagatik eta itzulpenen kalitateagatik (Japoniako Gallimard esan ohi diogu). Japonieraz argitaratu ditu, besteak beste, W. G. Sebald, Natalia Ginzburg, Antonio Tabucchi... Hau da, Uriberen autore kuttunenetarikoak eta beraren lanetan ere nabarmen eragiten dutenak. Bestalde, Hakuishia japonierazko idazle berrien aurkezpenean ere jardun da, eta hortik agertu dira gure idazle onenatariko batzuk, batez ere lehen itzultzaileak zirenak: besteak beste, Atsuko Suga (Natalia Ginzburg, Antonio Tabucchi, Umberto Saba eta Marguerite Yourcenarren itzultzailea) eta

Toshiyuki Horie (Jacques Réda, Yourcenar eta beste autore frantses batzuen itzultzaileak). Bi idazle horiek badituzte ezaugarri komun batzuk, itzultzaile izateaz gainera: saiakeraren eta narratibaren arteko genero anbiguo bat jorratzen dute, beharbada han *autofikzio* gisa hartuko luketena, eta badute bokazio poetikoa. Bi horien artean, Horie gazteagoa da (1962an jaioa), eta gaur egungo japonierazko autorerik estimatuenetakoa da; niri ere izugarri gustatzen zait. Eta japonierazko idazlerik onenetariko batzuk ere Hakuisharen katalogoan daude, batez ere Toshiyuki Horie. Aipatutako atzerriko autore batzuekin eta Frantziako literatura-rekin lotura estua du Horiek.

Kontua da Uriberen lehenengo nobela irakurri eta Horieren lanetako baten antz handia hartu niola, eta hori gogoan itzuli nuela *BNB* japonierara. Eta, argitaratzerakoan, Horieren beraren gomendio hitzak lortu genituen, argialetxearen bitartez, liburu gaineko zintan jartzeko. Horrela, liburu atera orduko, jada osatuta zegoen erreferentzia sare bat; hemengo literatura itzuliaren zaleak berehala ohartuko ziren, nahiko argi baitzegoen zer motatako irakurleei zegoen zuzenduta. Hau da, esan nahi zuen aipatutako idazleak eta literatura mota hori interesatzen zaienei seguru gustatuko zitzaizela. Gainera, sare hori japonierazko sorkuntzaren alderdi interesgarri batekin lotuta zegoen. Beraz, itzultitako literaturan ez ezik, hemengo literaturaren panorama orokorrean ere kokatzen zuen liburuak.

Beste alde batetik, *BNB* (eta, gero, baita *Mussche* ere) Hakuishako «Ex Libris» izeneko bilduma batean agertu zen. Bilduma horrek munduko idazle berriak japonierara

ekartzea du helburu, eta, orain arte, Denis Johnson, Roberto Bolaño, Atiq Rahimi, Miguel Syjuco, Su Tong, Colm Toibin, Alejandro Zambra, Olga Tokarczuk, Aleksandar Hemon, Wu Ming-yi eta Eduardo Halfon argitaratu ditu. Harrera ona izan du hemengo irakurlekoan, eta esango nuke erreferentziatzko bildumetako bat dela japonierara itzultitako literaturan. Eta Uriberen lana oso ongi egokitzen zitzaizen bai argitaletxearen ildoari bai bildumaren planteamenduari.

Bistan denez, orain arte aipatutako argitalpenaren testuinguru orokorra ez da bate-re *euskal* literaturarena (ezta Espainiakoarena ere). Baina idazlearen edo obraren *euskal* nortasuna argi eta garbi zehaztuta dago paratestuetan. Adibidez, liburuaren bizkarrean eta gaineko zintan, zera dio: «euskal literaturan agertutako idazle berri bat». Gero, kontrazalean zehazten da haren lehenengo nobela dela. Beraz, *euskal* izatea eta obraren *berritasuna* azpimarratzen dira hor. Bestalde, itzulpenetan, maiz, arazoak izaten ditugu izenburuarekin, baina *BNB*-ren kasuan ez zegoen halakorik, eta, izenburuan berez bidaia transatlantikoari eta leku jakin batzuei erreferentzia egiten zitzaizenez, gure azken lana izan zen, paratestuen bidez, horri ñabardura eta zehaztasun gehiago ematea. Kontrazaleko testuan, 15 lerrotan, informazio eta hitz gako pila bat sartu dira: Bilbotik hasi (Euskal Herrian, noski), eta hegazkineko bidaia, oroimena, familia, arrantzaleak eta itsasoarekin loturiko bizitza, Artetaren eta Picassoren *Guernica* (bide batez esanda, Gernika Euskal Herriko erreferentziarik indartsuenetakoa da), Gerra Zibila, iragana eta oraina, nobela baten idazketa prozesua,

eta abar. Eta azpimarratzen da narratzailearen hegazkin bidaia bat ardatz duen nobela bat dela, hamaika istorio eta analogiaz josia, arrantzaleen sare bat legez.

Itzultzailearen hitz-atzean, azalpen sako-nago bat eman nuen ezaugarri horiek nobelan dituzten funtzioez, bai eta liburuaren jatorrizko testuinguruari buruz ere. Euskal Herriaren, euskararen eta euskal literatura-ren historia azaldu nuen, idazlearen biografiaren berri ere emanez, eta esanez azkenaldian kanporatzen hasi den literatura berri batetik agertu eta ibilbide bat egiten ari den idazle bat dela. Eta azpimarratu nuen, aldi berean, hor atzean dagoen jatorrizko testuinguru hori ezagutu gabe ere zalantzarik ez izateko liburu horretan barneratzeko, idazlea bera bere mundua erakusten, irekitzen saiatzen baita, irakurleak barrura sartzera gonbidatuz. Azkenik, bi mapa prestatu eta txertatu genituen liburuaren lehen orrialdeetan, irakurleak orientatzeko. Bata, Ozeano Atlantikokoa, eta bestea, Euskal Herrikoa, Bilbotik New Yorkerako hegazkinaren ibilbidearekin batera, nobelan agertzen diren zenbait leku adierazita. Esango nuke, oro har, oso edizio zaindua dela, eta oso polita ere bai.

ELI: Edizioa mimo handiz zaintzeaz gain, liburuaren aurkezpena egiteko ere ahalegin handia egin zenuten.

NAMI: Bai, eta beste itzulpen lanetan normalean egiten den baino askoz gehiago, esango nuke. Edizioa prestatu eta gero, liburuaren promozionatzeko ordua iritsi zen. Eta idazlearen beraren bisita izan zen garrantzitsua: Uribe Japoniara gonbidatu genuen, Etxepare Institutuaren diru la-

guntzari esker, eta ekitaldi batzuk antolatu genituen, Tokion eta Okinawan. Tokioko ekitaldietara jende asko hurbildu zen, kritikari eta idazle ezagun batzuekin antolatu baikenituen liburu aurkezpenak eta euskarazko errezitaldiak, baina Okinawakoa izan zen interesgarriena. Okinawa Japoniako hegoaldean kokatzen den uhartedia da, eta badaukate utxina-gutxi, ryukyuera edo okinawaera deituriko hizkuntza bat. Hiltzeko arriskuan dagoen hizkuntza gutxitu bat da, UNESCOren arabera, eta euskara baino askoz egoera okerragoan dago. Beraz, biziki interesatzen zaie euskarak eta euskal literaturak azken hamarkadetan izan duten aurrerapena. Topaketa bat antolatu genuen hango poeta batzuekin, eta sekulako harrera izan genuen, Euskal Herrian izandako esperientziatik ikasi nahi baitzuten nola salbatu haien hizkuntza eta literatura. Ikusi nuen jendea izugarri emozionatuta, eskertuta ere bai euskal idazle bat hara ekartzeagatik, eta euskararekiko eta euskal literaturarekiko jakin-minez beteta: bene-benetako jakin-mina zen (ez dut beste inon horrelakorik ikusi). Oso hunkigarria izan zen. Han jasotako harrera beroak asko pentsarazi zidan. Iruditu zitzaidan euskaldunek asko duzuela eskaintzeko; beharbada, zuek uste baino gehiago, Okinawa eta halako lekuetan, euskara eta euskal kultura ezagutzeko benetako beharra sentitzen du jendeak.

Laburbilduz, *BNB*-k nahiko harrera ona jaso zuen hemengo irakurlegoaren zein kritikaren aldetik (erreseina eta aipamen asko agertu ziren egunkari eta aldizkari nagusietan), eta, horregatik, Uriberen bigarren nobela argitaratu zenean (*Mussche*), Hakuishak berehala erabaki zuen itzulpena

kaleratzea. Gero, *Mussche*-rekin egindakoa aurreko nobelarenaren jarraipen bat besterik ez da izan. Baina badira aldeak. Hasteko, izenburua pixka bat moldatuta dago, edo, zehatzago esanda, azpтитulu bat gehitu genion, eta honela geratu zen: *Mussche: heroi txiki baten istorioa*. Zergatik? Nik euskarazko jatorrizko edizioaren azaleko irudia eta izenburua mantendu nahi nituen, beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenetan ez bezala (nik dakidala, gaztelaniazko izenburua erabili dute beste edizio guztietan, *Lo que mueve el mundo*, baina niri egokia goa iruditu zitzaidan jatorrizkoa). Baina, *Mussche* bakarrik jarrita, ez zuen inork jakingo zertaz ari zen, eta, editoreak eskatuta, azpтитulu bat asmatu behar izan nuen; azkenean, nobelaren azken orrialdetik atera nuen esaldi hori. Baina, dirudienez, azpтитulu horrek asko lagundu zien irakurleei ideia bat hartzen: izan ere, nik ikusitako ia erreseina guztietan aipatzen zen.

Edizioa prestatzean, aurrekoan bezala, ahalik eta datu zehatzenak ematen saiatu ginen. Baina, egia esan, ez nengoen oso ziur: liburu horretan kontaktzen den guztia (Espainiako Gerra Zibilean Bilbotik ihes egin zuten haurrak, Flandria Bigarren Mundu Gerran) oso urruna zen hemengo irakurleentzat. Banekien aurreko nobela gustatu zitzaienei oraingoa ere gustatuko zitzaie, baina ez nekien zenbat irakurle erakarriko zuen hortik kanpo. Baina, liburua argitaratu zenean, kontrakoa gertatu zen: berehala, erreseina ugari agertu ziren, aurrekoan baino are gehiago, eta oso positiboak; gainera, idazlea gonbidatuta antolatu genituen ekitaldiak ere arrakastatsuak izan ziren, berriz ere. Bide batez esanda, oraingoa, Tokion

eta Kyoton antolatu genituen liburu-aurkezpenak, eta, gainera, euskaraz egin genituen ia guztiak, nik japonierara interpretatuta. Beharbada, hori izan zen alderik handiena aurrekoarekin konparatuta: aurreko bisitan, errezitaldiak euskaraz bai, baina hitzaldiak eta elkarrizketak gaztelaniaz egin genituen, artean ez bainuen den-dena euskaraz egiteko gaitasunik. Uste dut promozio ekitaldietan euskara erabili izanak mesede egin ziola *Mussche*-ren harrerari ere. Zeren, gaztelaniaz egiteak —gainera, gaztelaniaz hitz egiten ez den herrialde batean— publikoa mugatzen du nahitaez, eta, gainera, jendeak euskararekin eta Euskal Herriarekin izan ohi dituen ideia okerrak indartzeko arriskua ere badago. Baina, euskaraz egiten bada, hizkuntzari eta euskal literaturari ikusgarritasun handiagoa ematen zaio. Iruditzen zait hor alde nabarmena dagoela. Baina, noski, horretarako, interprete bat egon behar da, eta euskaraz egin dezakeen interprete bat ez da edonon aurkitzen.

Harira bueltatuz, dirudienez, Uriberen nobelan kontaktzen ziren historia eta istorio ezezagunek jakin-mina piztu zioten irakurle askori. Izan ere, idazlearekin egindako ekitaldietan eta beste aukera askotan, irakurle batek baino gehiagok eskerrak eman zizkiguten liburu hori idazteagatik eta japonierara ekartzeagatik, esanez bestela ez zutela inoiz gertakari eta pertsona horien berririk izango. Eta bereziki harritu omen zituen liburu hori euskal idazle batek idatzi (euskaraz, hau da, hizkuntza ezezagun batean) eta nik euskaratik japonierara itzuli izanak. Hemen, ohartarazi nahi nuke nik, itzultzaile gisa, Uribek euskaraz idazten duela eta nik euskaratik itzultzen dudala zehaztu bai

baina ez dudala inoiz bereziki azpimarratu alderdi hori. Edo, behintzat, ez zen nire asmoa. Baina irakurle askok horri erreparatu zioten, zerbait harrigarria balitz bezala. Eta, gainera, itzulpen saria etorri zen gero, eta horren eraginez liburua *deskubritu* dutenek bereziki erreparatu diote nire itzulpenari eta liburu hori *euskaratik itzulitako nobela bat* izateari. Orain pentsatuta, iruditzen zait nahikoa argi dagoela euskaratik zuzenean itzuli izanak eragina izan duela, neurri jakin batean, *Mussche*-ren harreran, eta, *BNB*-ren kasuan, ez hainbeste. Ondo hausnartu beharko nuke alde horretaz: esan bezala, ustekabeko zerbait izan baita niretzat. Baina esan nezake nire jarrera (hau da, euskaratik itzultzearena) askoz argiagoa izan zela *Mussche* itzuli nuenean *BNB*-ren kasuan baino, eta, agian, horrek ere eragina izango zuen. Hala ere, nik ez nuen espero euskaratik itzultzeak halako emaitza bat ekarriko zuenik, eta oraindik ere oso harrিতта nago.

ELI: Itzultzaile batentzat, berebiziko esperientzia izango da hori; eskertzekoa izango da halako harrera goxoa jasotzea irakurleengandik. Urruneko bi literatura gerturatzeke zuzeneko itzulpena erabiltzeak eragin positibo nabarmena du kasu horretan, eta zure ahalegin eta lan guztiari zentzua ematen dio horrek. Itzulpen prozesua ez ezik, zuk diozun moduan, aurkezpen eta promozio lana ere berebizikoa da literatur harremanak bisibilizatu eta sustatzeko.

NAMI: Egia esan, oraindik gertatutako guztia ongi asimilatu ezinean nago, oso esperientzia berezia izan da eta. Dena den, uste dut euskaratik itzultzen dugunok ongi pentsatu beharko dugula zergatik itzultzen

dugun euskaratik eta ez gaztelaniatik (edo frantsesetik, kasuaren arabera), eta zer alde egongo den hor, itzulpen prozesuan ez ezik itzulpenaren emaitzan eta haren harreran ere. Nik I. B. Singer itzultzailearengandik ikasi nuen hemen jarrera hori, yiddisetik (hau da, ez ingelesetik) itzultzen baitu. Aipatu bezala, ni hispanista naiz formakuntzaz, baina, azken urteotan, beste literatura batzuetako adituekin ibiltzen naiz batik bat, hainbat ekimen eta proiektu sortzen ari baita hizkuntza eta estatuen mugetatik haratago doazen ikerketak bultzatzeko. Hor, asko ikasten dut, eta ikuspegi aberasgarriagoak aurkitzen ditut euskal literaturaz eta itzulpengintzaz hausnartzeko, hispaniar edo iberiar ikasketetan baino.

ELI: Bestalde, aipatu duzun ikuspegiaren harira, euskal literaturaren definizioa aipatu nahiko nuke. Hau da, euskal literatura euskaraz sortzen denaz haratago ote doan auzia behin eta berriz hartzen dugu ahotan. Oro har, euskal literaturaren historiari buruzko liburuek euskaraz ekoitzi dena hartzen dute erreferentzia nagusi. Alabaina, Joseba Gabilondok berriki argitaratu duen *Before Babel* lanean, euskaraz soilik argitaratu dena ez, baizik eta gaztelania eta frantsesa ere kontuan hartu behar direla dio. Gaztelaniaz zein frantsesez argitaratu den horretatik hurbildu ohi da euskal literaturara kanpoko itzultzailea? Zenbaterainoko eragina du horrek guztiak? Euskal literaturaren zer irudi hartzen du irakurleak lan horien bitartez?

NAMI: Hasteko, hein batean ados nago Gabilondoren iritzi horrekin, baina ñabardura batzuekin. Gabilondok ere bere liburuan esaten duen bezala, *euskal literatura* zer

den birpentsatzeko, Euskal Herriko hizkuntzen eta idazleen arteko harremani behatu beharko zaie, ez hizkuntza batean edo bestean ekoitzi denean arreta mugaturik: alde horretatik, iruditzen zait ez direla gauzak konpontzen ohiko *euskal literatura-ren historiari* gaztelaniaz, frantsesez edota ingelesez idatziriko literatur lanak beste atal batean gehituta. Baina, oraingoz, *euskal literatura* kontzeptua bera gai handiegia denez neurtzat ere, gaur egungo euskarazko sorkuntzara mugatzen dut nire fokua. Hala ere, sorkuntza hori inguru eleaniztun eta diglosiko batean gertatzen den neurrian, eta gaur egungo (eta beste garai bateko ere bai, segur aski) euskal idazle guztiak gutxienez elebidunak izan eta, gainera, gaztelaniaz edo frantsesez ere argitaratzen duten heinean, faktore horiek izugarri markatzen dute euskarazko sorkuntza bera, eta ezinezkoa iruditzen zait euskaraz idatziriko literatur lanak irakurtzea alderdi horiek guztiak kontuan izan gabe, euskara bakarrik kontuan harturik. Gaztelaniaz eta frantsesez idatzitakoetan ez da gauza bera gertatzen; autonomoagoak dira euren hizkuntzan. Alde horretatik, oso bestelakoak ikusten ditut nik. Hala ere, nahiz eta dena zaku batean sartzearen aurkakoa izan, ez nuke zalantzarik izango euskal herritar izateak planteatzen duen hainbat auziri erantzuten dioten literatur lanak *euskal literatura* izendatzeko, edozein hizkuntzatan idatziak badira ere.

Baina, nabardura horiekin guztiekin ere, lehenago esan bezala, gaztelaniaz irakurtzen dutenentzat *literatura vasca* izango da dena, eta gaztelaniaz argitaratzen duten guztiak, *escritores vascos*: Baroja eta Unamunorengandik hasi eta Ramiro Pinilla edo Fernan-

do Arambururenganaino hedatzen den zerranda horretan egongo dira Atxaga, Uribe, beharbada Saizarbitoria, Lertxundi eta Harkaitz Cano ere bai, baina hor nekez sartuko dira Lizardi, Lauaxeta, Aresti, Mirande, Itxaro Borda, eta euskaraz bakarrik argitaratzen duten idazle asko. Bestalde, egongo dira beste batzuk Atxagaren lanen bitartez euskal literatura deskubritu dutenak, nik neuk bezala, eta, irakurle horientzat, gaztelaniara itzulitako euskal (euskaraz idazten duten) idazleen lanek osatuko dute euskal literaturaren irudia. Frantsesaren bitartez hurbiltzen direnentzat, ez dakit, baina pentsatzen dut antzeko zerbait gertatuko dela: frantsesez dagoena izango da azken finean, dela frantsesez idatzia, dela itzulia.

Kanporako itzulpena

ELI: Azken urteetan, gero eta gehiago dugu euskaratik erdaretarako itzulpenen berri. Nolabait ere, hor ari zarete ibilbide bat egiten zenbait itzultzaile. Euskal Herriko eragileak ere ari dira kanporako norabide horren sustapena egiten. 2000. urtetik aurrera, Kultura Saila itzulpenerako diru-laguntzak ematen hasi zen, eta, egun, Etxepare Euskal Institutuak kudeatzen ditu laguntza horiek, zeinak urteroko deialdien bitartez esleitzen baitira. EIZIEk antolaturiko *Idazlea itzultzaileen lantegian* ekimenak ere kanporako literatur itzulpenean formakuntza eskaintzea du helburu, hein batean. Bidaietarako diru-laguntzak ere kudeatzen ditu Etxeparek, idazleek zein gainerako diziplinetako artistek euren lana kanpoan ezagutarazteko. Aurtan, bestalde, *Itzultzaile Berriak* programa jarri da abian, kanpoko itzultzaileei eus-

kara irakasteko xedez. Horiez gain, euskal literatur bilduma espezializatuak ere sortu dira: bata, mundu akademikoaren baitan, Nevadako Unibertsitatean, Renon, non euskal ikasketak eskaintzen baitira; bestea, Alemaniako Pahl-Rugestein argitaletxe independenteak sortu du, *Baskische Literatur* izeneko bilduma. Aipaturiko ekimen horiek guztiak ikusita, bide onetik al doa kanporako itzulpenaren sustapena? Zer bide jorra liteke? Nork egin beharko luke ahalegina?

NAMI: Aipatu dituzun laguntzak eta programak oso ongi iruditzen zaizkit, eta neu ere Etxepareren laguntzaren onuradun izan naiz nire bi itzulpenak argitaratzean. Eta eskertzekoa da, batez ere kanpokoontzat, euskal kultura ezagutzeko aukera gero eta zabalagoa izatea. Baina, egia esan, baditut zalantza batzuk, batez ere itzulpen lanen argitalpeni eta idazleen bidaiei dagokienez. Iruditzen zait ongi aztertu beharko direla emaitzak, eta bereziki zer publiko motari zuzenduta dauden itzulpenak zein idazleen ekitaldiak. Publiko zabalari begira egiten dira, edo gaztelaniaz eginez gaztelaniaz dakitenei bakarrik daude zuzenduta? Lehena go esan bezala, hor badago alde handi bat, eta iruditzen zait oso kontuan hartzekoa dela.

Ildo berean, niri izugarri garrantzitsua iruditzen zait itzulpena zer argitaletxetan eta nolako bildumatan agertzen den. Eta, egia esan, ez zait hain ongi iruditzen mundu akademikoan edo euskal literaturan espezializatutako bilduma batean itzulpenak argitaratzea; hemen, Japonian ere, horrelako eskaintzaren bat jaso dudan arren, ez naiz animatu. Iritzi pertsonal bat da, eta ez dut

ukatuko Nevadako Unibertsitateko edo argitaletxe alemaniar horren argitalpenen garrantzia, baina zalantza daukat, oso irakurle mota mugatuari zuzentzen zaizkiolako. Eta, gainera, Japonian bereziki, zenbat irakurle egongo dira Euskal Herriaz edo euskal literaturaz alde aurretik nahikoa interesatuta daudenak modu horretan argitaratutako liburuak irakurtzeko? Liburuak ateratzea oso inportantea da, baina nik lehentasuna jarriko nioke (eta jartzen diot) ahalik eta irakurle gehienei zuzentzeari. Horregatik, beti saiatu izan naiz mundu komertzialean bide bat egiten (literatura itzuliaren merkatu txiki-txikiarenean bada ere), euskal idazleen lanak argitaratu daitezen argitaletxe garrantzitsuenetan eta literatura itzuliaren irakurle guztiek kontuan hartzen duten bilduma batean edo bestean. Horrela, niri iruditzen zait behintzat, harrera hobea lortzeaz gainera itzulpen proiektuak ere ekonomikoki iraunkorragoak izan daitezkeela alde guztiontzat (itzultzailea, argitaletxea eta laguntza ematen duten instituzioentzat), eta horrek lagunduko digu, gainera, itzulpengintzan nolabaiteko jarraitutasuna lortzen ere.

ELI: DSS2016k, Etxeparek eta EIZIEk *Itzultzaile Berriak* programa jarri dute abian 2016an, eta, aipatu berri dugun moduan, horri esker, 8 itzultzaile izan ditugu Euskal Herrian euskara ikasten eta euskal kultura ezagutzen, gero euren herrialdeetan euskaratik literatura itzultzea sustatzeko. Zer iritzi duzu programa horren inguruan?

NAMI: Egia esan, arreta handiz jarraitu dut *Itzultzaile Berriak* programaren nondik norakoa. Asko pozten nau horrelako ekimen bat abian jarri izanak, eta, aitortuko dut, in-

bidia pixka bat ere sentitzen dut, ze, pentsa, ni euskal literatura ikasten hasi nintzenean ez zegoen horrelakorik... Pentsaezina zen itzultzaile kanpotar batek horrelako babesa izatea Euskal Herrian hizkuntza eta literatura ikasteko. Gainera, badute idazleekin eta beste itzultzaile batzuekin lan egiteko aukera ere... Luxu bat da, benetan.

ELI: Mahai-inguru bat egin genuen, Gasteizen, sei hilabeteko egonaldi egin duten lau *itzultzaile berriekin*, eta argi ikusi genuen epe laburregia dela euskara nahikoa ikasi eta jatorrizko lanetik zuzenean itzulpena egiteko. Nola eman jarraipena egunen batean helburua lortzeko? Zer gomendio emango zenuke zuk?

NAMI: Bai, seguruenik, jarraipenarena izango da auzirik handiena. Noski, itzultzaileak trebatzea ez da sei hilabeteko kontua, eta Euskal Herrian egindako egonaldi hori gero etorriko den prozesu luze baten hasiera besterik ez da izango *itzultzaile berrientzat*: etxera bueltatu ostean, beren kabuz jarraitu beharko dute euskara ikasten, eta euskaratik itzultzen. Eta, hizkuntza ongi ikasteko, itzulpen lan bat egiteko, argitaratzeko, eta nolabaiteko emaitza lortzeko, denbora behar da. Gainera, izugarri lan handia egin behar da euskarazko literatura beste kultura batera eramateko, txikia eta ezezaguna den heinean; are gehiago, itzulpen lan bat kaleratu bakarrik ez, gero beste bat eta gehiago itzultzen jarraitzeko... Prozesu horretan zehar, komeniko da nolabaiteko babesa ematea.

Adibidez, beharrezkoa iruditzen zait, itzultzaileen beren inplikazio handiaz gain, haien lan indibidualak sostengatzeko sare-

txo bat. Xede kulturaren, itzultzaileek berek aurkitu eta eraiki beharko lukete sare hori, lan eginez, euren lanekin bertako editoreak, kultur eragileak (kritikariak, idazleak, kazetariak...) eta batez ere irakurleak bereganatuz. Baina uste dut Euskal Herritik ere laguntza asko eman ahal izango diezuela, bai instituzionalki, eta bai pertsonalki.

Etxepare Institutuak dagoeneko betetzen du funtzio hori, itzulpenerako eta idazleek bidaia egiteko diru laguntzen bitartez. Eta, orain, *Itzultzaile Berriak* programa dela eta, esango nuke itzultzaileek ez ezik zeuek ere aukera ezin hobea duzuela haien bitartez beste kulturekiko harremanak estutzeko, euskal literaturaren itzulpenak zabalduz joan daitezten. Itzultzaileak behar-beharrezkoak dira bitarteko gisa, ez baitago itzulpenik itzultzailerik gabe; eta, aldi berean, zeuek ere informazio ugari jaso ahal izango duzue haien bitartez, hango literaturari buruz, itzulitako lanen harrerari buruz... Hortaz, iruditzen zait ongi zaindu beharko dela itzultzaile horiekiko harremana. Modu askotan egin liteke hori: itzulgaien hautaketan eta itzulpen prozesuan aholkuak emanez; liburuak eta beste material batzuk eskainiz; idazleak, kritikariak eta beste itzultzaile batzuk aurkeztuz, Euskal Herrira gonbidatuz eta mintegiak eta tailerrak antolatuz... Bistan denez, lan asko eskatzen du, baina, asmorik eta baliabiderik baldin badago, nik uste ez dagoela halakorik ez egiteko aitzakiarik.

Dena den, argi dago urte askotarako zeregina izan beharko duela, eta niri iruditzen zait horretan gakoa izango dela elkarlana izatea, eta ez soilik itzultzaileen artean.

ELI: Euskara ikastetik euskaratik itzultzera urrats handi bat dagoela aipatu diguzu lehen, hizkuntza bera sakonki ikasi eta kultura barrutik ezagutu behar baitu itzultzaileak. Gaztelaniara itzulirik dagoen lan bat itzuli behar izanez gero, zer erabilera eman beharko lioke bertsio bakoitzari itzultzaileak? Lehentxeago aipatu diguzu *BNB*-ren itzulpenaren kasuan zuk zeuk egin zenituela hiru bertsioren arteko moldaketak, ahalik eta emaitza egokiena sortzeko asmoz. Hor nabari daiteke gaztelaniazko itzulpenak ez direla gainerako erdaretako maila berean kokatzen. Idazleak ongi baino hobeki dakien hizkuntza bat izanik, gertutik jarrai dezake amaierako emaitza. Sarritan, itzulpen prozesuan aktiboki parte hartu ere bai, edo itzulpenaren ardura guztia bere gain hartu, autoitzulpenen kasuan. Euskarazko eta gaztelaniazko bertsiok gertukoak izan daitezke, edo aldaketa nabarmenak jaso; hor, nolabait ere, kasuistika oso zabala izango da. Hortaz, nork erabaki zein bertsio itzuli? Zeinek beharko luke, zure iritziz, itzulpenearako erabiliko den iturburu testua?

NAMI: Nik uste dut itzultzaileak baduela eskubidea zer testutatik eta nola itzuli erabakitzeko, eta egokiena izango da azken erabakia berarena izatea, ez idazlearena, ez argitaletxearena. Azken finean, itzultzaileak inork baino hobeto ezagutuko ditu jatorrizko lana eta xede hizkuntza, aldi berean, eta, gainera, euskaratik itzuliko badu, euskara maila ere kontuan hartu beharko luke. Hori bai, euskarazko zein gaztelaniazko bertsiok ongi aztertu beharko ditu erabakia hartzeko, eta idazlearen asmoa ere errespetatu beharko da. Horiek guztiak kontuan har-

turik, itzultzaileak bi bertsio horien artean kokatuko luke bere burua, hor nonbait, bere erabakiaren arabera.

Eta, aldi berean, esan beharra dago euskarazko testua jatorrizkoa izanik ere ezin dugula gaztelaniara egindako itzulpena guztiz arbuiatu, arrazoi askorengatik, baita idazlea autoitzultzailea ez denean ere: Espainiako literatur sistema nagusi delako, gaztelaniazko bertsioa beste hizkuntza askotarako itzulpenen iturburu testu bilakatzen delako, Espainian izandako harrerak pisua duela beste hizkuntzetara itzultzeko erabakietan... Edo, aipatu bezala, itzultzailearen beraren ezagutza eta hizkuntza gaitasunagatik: ze, jakina, kontuan hartuta gaztelaniaren bitartez hurbildu ohi garela euskal literaturara, hasieran, gaztelaniaz gehiago eta hobeto irakurtzen dugu guztiok, eta gaztelaniazko testuaren mende gaude, modu batean edo bestean. Gainera, pentsa, hizkuntza askotan ez daukagu euskarazko hitzak zuzenean kontsultatzekeo hiztegiak ere, eta, hizkuntza gutxi horien artean ere, gaztelaniazkoak hobeak dira. Orduan, gaztelania beti hor dago, itzulpen prozesu osoan zehar. Gero, itzultzaile bakoitza euskararen ezagutza sakonduz joan ahala, aldatuz joango da dependentzia harreman hori. Baina, aldatuta ere, oso naturala da gaztelaniazkoa ere kontsultatzea itzulpen prozesuan, ongi asko ezagutzen dugun hizkuntza izaki; eta, itzultzaile eleaniztun garen neurrian, esango nuke guztiz zilegi dela eskura dauzkagun bertsio guztiak baliatzea.

ELI: Gaztelaniazko testuari, hortaz, garrantzia eman behar zaiola iradokitzen duzu. Euskaratik gaztelaniara gero eta lan gehiago

itzultzen dela ikusirik, kontuan izatekoak dira zure hitzak.

NAMI: Bai. Nik uste, edonola ere, onartu behar dugula gaztelaniarako itzulpenaren garrantzia, baina orain arte aipatutako fiabardura guztiekin; hori ere azpimarratu nahi nuke. Eta iruditzen zait oso ongi zaindu beharko dela gaztelaniarako itzulpenen kalitatea; ez bakarrik hizkuntza horretatik egingo diren zeharkako itzulpenei begira, baizik eta baita euskaratiko itzulpen zuzenaren euskarri gisa ere, zuzeneko itzulpena benetan sustatu eta zabaldu nahi bada. Nik, behintzat, ez dut beste modurik ikusten.

ELI: Bada arriskurik *iturburu testu* bihurtzekoa gaztelaniazkoa, *testu lagungarri* izan ordez?

NAMI: Nik uste itzultzaileak, behin euskara ongi ikasiz gero, beti hartuko duela euskarazkoa iturburu testu gisa, euskara ikasteak berak hainbeste dedikazio eta inplikazio pertsonal eskatzen duelako. Horretaz ia ziur nago, baina aipatu duzun arriskua, noski, egon badago, batez ere euskaratik itzultzen hasi direnentzat (nik ere izan nuen nire lehenengo itzulpenean, hain zuzen ere). Horrexegatik da hain garrantzitsua itzultzaileak berak ongi hausnartzea zergatik itzultzen duen euskaratik eta ez gaztelaniatik. Eta, gaztelaniazko testua modu batean edo bestean erabiltzea erabakitzen duenean ere, uste dut itzultzaileak ez duela ahaztu behar bertsiore hori ez dela iturburu, euskarri baizik, eta jatorrizkoa euskarazkoa dela beti.

Egia esan, azkenaldian, asko pentsatu dut gai horretaz, eta iruditzen zait bada-

goela beste arrisku bat ere: literatur lan bat euskaratik itzultzea edo itzuli izana zerbait sinbolikoa bihurtzea. Nire ustez, ez du hala izan behar: itzulpenaren emaitzan eta harrieran nabaritutako den zerbait izan beharko luke, eta itzultzaile bakoitzak ikusi beharko du zer egin dezakeen euskaratik beraren hizkuntzara literatur lanak ekarriz.

ELI: Sei hilabeteko egonaldia egin duten lau itzultzaile berrien bisita izan genuen 2016ko maiatzean Letren Fakultatean, UPV/EHU. Han, itzultzaileek euren eskarmentuari buruz hitz egin ziguten, bai eta programan parte hartzeko eginiko erabakia-ri eta egonaldiari buruz ere. Egonaldi luzea egin duten lau itzultzaile horiek itzulpen proiektu bana aurkeztu behar izan zuten programan parte hartzeko. Bik Bernardo Atxagaren lan bat itzultzea zuten helburu; beste batek, Kirmen Uriberena, eta laugarrenak, Arantxa Urretabizkaiaren bi liburu. Mahai-inguru hartan, honako galdera hau atera zen: zergatik hautatu zituzten euskal literaturako *izen potoloak* itzulpen proiektua aurkezterakoan, ea ez al dauden izen horiek jada itzulirik, ea zerk bultzatu zituen aukeraketa egitean. Noski, eskuragarritasuna da lehenengo erantzuna: euskararik ez dakien xede hizkuntzako batek gaztelaniara jada itzulirik dagoen lan bat hautatuko du; gaztelaniara itzulia eta arrakasta minimo bat izan duen lana, gainera. Nola iritsi, bestela, haren eskuetara?

NAMI: Bai, horrela gertatzen da, eta badakit ondo baino hobeto, niri ere batek baino gehiagok galdetu baitit zergatik itzuli Kirmen Uribe eta ez beste autorerik. Eta, nire hurrengo itzulpena Atxagaren nobela

bat izango denez, ziur nago aurrerantzean ere galdera bera egingo didatela behin eta berriz.

Nik galdera hori egiten didatenei erantzuten diet bide bat egiten saiatzen ari naizela suertatu zaidan egoera jakin batean, baldintza jakin batzuekin, eta ahal dudan moduan, ahalik eta modu onenean egiten ere saiatzen ari naizela, pausoz pauso. Gainera, kontuan hartu bide honetan hasi berria naizela... Ezinezkoa da nahi duzun (eta besteek nahi duten) guztia berehala itzultzea. Itzulpen lan bat ateratzeko, denbora behar da; bai noski itzultzeko, baina baita beste hamaika gauza egiteko ere: argitaletxeekin eta editoreekin negoziatzeko, liburuari behar bezalako itxura emateko, kaleratzeko, promozioan parte hartzeko, argitaratutako lanak nolabaiteko harrera jasotzeko, bai eta harrera hori aztertzeko ere, beste itzulpen bat eginez gero kontuan hartzeko. Lehenago ere esan bezala, epe luzerako proiektu bat da, eta ahalik eta egokien bideratzen saiatzen ari naiz. Beraz, esango nieke itxaroteko, hamar edo hogeitun urte geroago liburu itzulien katalogo zabalago bat izango dudala, bide honetan jarraitzen uzten badidate.

Eta itzulgaiak aukeratzea ez da eskuragarritasun kontua bakarrik. Niri, behintzat, iruditzen zait Atxagaren lanek (batez ere Obabako ziklokoek) eta Uriberenek badutela irakurleekin komunikatzeko gaitasun handia. Gainera, idazle horiek erreferentzia asko kontuan harturik idazten dute, bakoitzak bere moduan. Orduan, errazago gertatzen zaigu haien lanak itzultzea eta beste kultura batean aurkeztea. Eta, idazle horien lanek irakurleak harrapatu eta euskal literaturarekiko jakin-mina sortzen badute, gero

errazago egingo zaigu beste idazle batzuk ere aurkeztea. Nik, gutxienez, horrela ikusten dut; hori bai, gaztelaniaren eragina alde batera utzita, hori arazo larri samarra baita ikuspegi guztietatik.

Baina, aldi berean, uste dut onartu beharko genukeela abantaila bat dela gaztelania bitarteko hizkuntza izatea. Duela gutxi, Itzulpen Saria irabazi eta gero, zer pentsatua eman dit hemengo literatura thailandiarren itzultzaile eta ikertzaile batek esandakoak; alegia, hizkuntza txikien artean ere, hizkuntza nagusi batekin kontaktuan daudenean badutela abantaila handia hizkuntza nagusi horretan errekonozimendua jasotzeko eta horri esker zabalkuntza bat izateko beste hizkuntza askotan ere, baina thailandieraren kasua ez dela hori. Ingelesarekin kontaktuan dauden hizkuntzei dagokienez, argi baino argiagoa da hori, aspalditik, baina iruditzen zait euskararen kasuan ere oso kontuan hartu beharko dela hori.

ELI: Horren harira, aipatu nahiko nuke sarritan aipatu izan dugun kontu bat: gaztelaniaren merkatua txanpon beraren aurkia eta ifrentzua dela aldi berean. Izan ere, batetik, ateak zabaltzen dizkigu irakurle berriengana iristeko, bai gaztelaniazkoengana eta bai beste hainbat hizkuntzakoengana ere; bestetik, baina, nolabaiteko morrontza bat sorrarazten du sistema horrekiko, eta haren beharretara moldarazten bai literatur lanak eta bai idazleak zein itzultzaileak.

NAMI: Ongi ezagutzen dut kontua, eta erabat ados nago ikuspegi horrekin. Hala ere, insistituko nuke gaztelaniarekiko harremana abantaila bat ere badela eta, nahiz eta hainbat arazo sortu, hori ahalik eta

ongien aprobetxatu beharko dela. Eta, gainera, kanpoko itzultzaile askorentzat, ia ez dago beste biderik, lehenago esan bezala. Orduan, itzultzaileok, euskaratik itzultzen hastean, nahitaez eutsi behar diogu bide horri, eta, modu batean edo bestean, gaztelaniaren mende jarri. Eta, hortik ateratzea oso zaila bada ere, dependentzia harreman hori aldatu beharko da, eta nik uste aldatuz joango dela; maila pertsonalean, gutxienez. Baina, maila orokorrean, arazoa beti hor dago, eta horrekin negoziatuz beste bide bat egiten saiatu behar dugu. Nik, behintzat, oso kontuan edukitzen dut hori guztia, eta, dudarik gabe, euskaratik itzuli nahi dugunok aurre egin behar diogun auzi handienetako bat izango da.

ELI: Bestalde, editoreei ezezagunak izango zaizkien idazleen lanak itzultzeko proposamena egitea suertatuko zaizu zuri. Nola egin halakorik? Zer moduzkoa izan da esperientzia?

NAMI: Nire kasuan, argitaletxearekin eta editore batzuekin aurretik tratua egin izanak asko lagundu zidan Uriberen lehenengo nobela itzultzeko. Alde batetik, gaztelaniazko liburu batzuen iruzkinak eta itzulpen-probak egiteagatik sortu zen tratua, eta, bestetik, gaztelaniatik egindako beste itzultzaile batzuen lanak zuzentzeagatik (dena esan beharko). Orduan, bazekiten nik ongi itzultzen nuela beste hizkuntza batetik (gaztelaniatik eta ingelesetik, behintzat) japonierara, eta, gainera, ikertzailea izaki, banuela nolabaiteko ezagutza mundu hispanikoko eta Euskal Herriko literaturari buruz. Beraz, argitaletxeko batzuek bazeukaten konfiantza pixka bat nire lanetan.

Bestalde, hasieran ez nien Uriberen nobelaren (*BNB*-ren) itzulpenik proposatu, editore bati aipatu nion soilik, azkenaldian irakurritako liburuei buruz galdetu zidanean (horrelako galderak beti egiten dizkigute hemen itzultzaileoi). Eta asko interesatu zitzaion, eta eskatu zidan liburuaren iruzkina eta itzulpen-proba prestatzeko (horrelako eskaerak ere beti egiten dizkigute hemen). Baina nik, orduan, ez nuen eskaera hori serioски hartu, ez bainuen espero euskaraz idatzitako nobelarik argitaratuko zutenik. Baina, gero, gertakari batzuek Uriberen nobelan kontaktzen ziren hainbat gauza oroitarazi zizkidaten bereziki (zehazki esanda, 2011ko lurrikarak, tsunamiak eta Fukushimako istripuak, zeinek Japoniako iparraldeko kostaldeko herri asko suntsitu baitzituzten), eta liburu hori itzultzeari ekin nion, lurrikaren ondorioz dena etenik zegoen egun haietan. Horrela osatu nituen lehenengo kapituluaren itzulpen-proba eta iruzkina.

Iruzkinean, liburuaren ezaugarrien azalpenak sartu ohi ditugu: gaia, egitura, trama, idazkera, nolako harrera eta kritika izan duen jatorrizko kulturaren eta beste kulturetan (batez ere sariak), zenbat hizkuntzatarat itzulita dagoen, nola hartuko luketen hemengo irakurleek, zer-nolako berritasunak ekartzen dituen gaur egungo (eta bereziki japonierara itzulitako) literaturaren panorama, nola moldatzen den argitaletxearen ildoarekin, eta abar. Kasu horretan, Uriberen nazioarteko ibilbidea azpimarratu nuen, berritasunarena, eta batez ere argitaletxearen ildoarekin ederki bat egiten zuela. Hala ere, erabakigarriena itzulpen-proba izan zen. Argitaletxean, hiruzpalau bileretatik pasatu

behar du proposamen batek, azkenean argitaratzeko erabakia hartu baino lehen. Baina, bilera guztietan, nire itzulpen-probak sekulako arrakasta izan omen zuen; horretan ez zuten zalantzarik jarri, eta oso azkar atera zen dena. Konturatu nintzenerako, erabakita zegoen. Zorte handia izan nuen, benetan. Eta, *BNB*-ren itzulpenak nahiko harrera ona izan zuenez, betiko gauza horiek eskatu zizkidaten Uriberen hurrengo nobela atera zenean (itzulpen-proba eta iruzkina), eta, arazorik ez zegoenez, berriz ere erabaki zuten Uriberen lana argitaratzea.

Azkenaldian, beste argitaletxe batekin ere hasi naiz lan egiten, eta esango nuke ia gauza bera egin dudala: liburuaren iruzkina eta itzulpen-proba. Baina, oraingoan, urteak kostatu zait: 2012an edo 2013an, nire lehenengo itzulpena atera berri zenean, Atxagaren *Soinujolearen semearen* itzulpena proposatu nien, baina orduan ez zidaten erantzun argirik eman. Saiatu beharko nukeen insistitzen, baina, ikerketak zirela eta beste itzulpen lan bat zela eta, ezin nuen horretarako denbora askorik hartu, eta, gainera, hemengo argitaletxe nagusietako bat zenez, ez nengoen oso ziur... Baina, aurtan, Itzulpen Saria irabazi eta gero, argitaletxe-koak harremanetan jarri ziren nirekin, eta orain asko interesatzen zaie nire itzulpen bat argitaratzea. Orduan, berriz prestatu nituen iruzkina eta itzulpen-proba; aztertu zituzten, eta duela gutxi erabaki dute Atxagaren nobela ateratzea. Asko pozten naiz azkenean erabakia hartu dutelako. Hemen gehien irakurtzen den literatura itzuliaren bilduman argitaratuko dute, gainera. Bazegoen beste argitaletxe txikiren batean ateratzeko aukera ere, baina uste nuen merezi zuela liburua

bilduma horretan agertzea. Eta, hori lortu dugunez, espero dut ahalik eta irakurlego zabalenera iritea.

ELI: Berri ona da hori inondik ere, Nami. Zorionak, benetan. Egiten ari zaren ahalegin eskerga dela eta, fruituak ematen ari da zure lana. Ezin ukatu Itzulpen Saria ezinbesteko tresna denik zeure lanean aurrera egiteko zein euskarazko lanak sustatzeko.

Ikertzea / Itzultzea

ELI: Itzultzaile izateaz gain, ikertzaile ere bazara. Hain zuzen ere, Bernardo Atxagaren lanari buruzko tesia ari zara idazten. Azalduko al zeniguke zer ari zaren aztertzen zehazki?

NAMI: Lehenago aipatu bezala, hasieran, bereziki interesatzen zitzaidan Atxagaren autoitzulpengintza, eta haren testuak bi hizkuntzetan konparatuz aztertzen hasi nintzen. Gainera, metodo horrek euskarazko testura gero eta gehiago hurbiltzen lagundu zidan. Baina, halako batean, iruditu zitzaidan zerbait gaizki zegoela nire planteamenduan. Jakina, metodo horrekin, 1989tik aurrera gaztelaniara itzulitako Atxagaren lan asko azter zitezkeen, baina, haren ibilbide osoa kontuan hartuta, konturatu nintzen gauza garrantzitsu batzuk kanpoan geratuko zirela: batez ere, 1970eko hamarkadatik hona euskal idazle gisa aurre egin behar izan dien auzietako asko; euskal literaturak aldaketa sakona jasan duen garai erabakigarri horretan, gainera.

Hori dela eta, nire planteamendua pixka bat moldatu nuen, eta, autoitzulpenaren orde, euskarazko sorkuntza ardatz jartzea

proposatu nion neure buruari, baina beti idazleak gaztelaniarekin duen harremana kontuan harturik. Izan ere, nire iritziz, horixe da hizkuntza txiki bateko sorkuntza-aren ezaugarririk handienetakoa: hizkuntza nagusi(ar)ekiko harreman diglosikoa. Eta horixe izan da, baita ere, Atxagak euskal literatur munduan agertu zenetik behin eta berriz aldarrikatu duena: euskal idazleak, idazle elebidun izanik, beti kontuan eduki behar duela beste hizkuntza (gaztelania, beraren kasuan), eta bi hizkuntzen ezagutzatik ahalik eta onura handiena atera behar duela bere lanak garatzeko. Baina argi dago, aldi berean, hainbat arazo sortu zaizkiola bere sorkuntzan eta haren inguruan, bere burua bi hizkuntzen artean kokatzeagatik. Beraz, nire asmoa da Atxagaren jarrera hori kontuan harturik Atxagaren beraren sorkuntza lanen bilakaera aztertzea, eta ikuspegi horretatik ari naiz haren lanak berrirakurtzen, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Batez ere, Obaban kokaturiko lanak —*Bi anai*, *Obabakoak* eta *Soinujolearen semea*— eta Pott bandako garaitik azkenaldira arte bere lanei buruz eta euskaraz literatura egiteari buruz idatzitako testuak hartzen ditut kontuan. Azken urteotan, gaztelaniarako itzulpenak gero eta gehiago agertu eta idazle gero eta gehiago inplikatzeko direnez, iruditzen zait Atxagaren ibilbideak eta haren hausnarketek zer pentsatu handia ematen digutela.

Eta, gainera, momentu egokia iruditzen zait Atxaga berrirakurtzeko. Badira urteak Olaziregik eta Apalategik Atxagari buruzko tesi bana aurkeztu zutenetik, eta gero ia ez dago ikerketa monografikorik; bestalde, azken hamarkadetako euskal literaturaren *internazionalizazioa* dela eta, kanpoan gero

eta ikerketa gehiago ari dira agertzen Atxagaren lanen inguruan, baina beti gaztelaniazko bertsioetan oinarriturik. Hutsune handia ikusten dut bi motatako lan horien artean; beraz, iruditzen zait onuragarria izan daitekeela nire proposamena hor egotea, Atxagaren lanak berriz kontestualizatzen baititu bi hizkuntzekiko harremana kontuan harturik.

ELI: Ikertzaile/itzultzaile aritu zara azken urteetan. Itzulpengintzari begiratzeko bi ikuspegi. Fazeta bakoitzak lagunduko du bestean, ezta? Itzultzaile larrian jarrita, zertan nabaritzen duzu ikertzailearen begirada? Eta, alderantziz, zer eragin du itzultzaile aritu izanak ikerkuntzan?

NAMI: Bada, esan beharra daukat niretzat ikerketa eta itzulpengintza estu-estu lotuta daudela. Alde batetik, hasieran, bazegoen itzulpen bat (*Obabakoak*-en japonierazko edizioa, gaztelaniatik itzulia), eta itzulpen horrek bultzatu ninduen euskal literatura ikertzera. Esango nuke antzeko zerbait gertatzen dela beti; gainera, leku askotan. Hau da, kanpoko irakurle askok itzulpen baten bidez izaten dugu euskal literaturaren berri, eta, segur aski, batek baino gehiagok ikergai gisa hartuko dute itzulita irakurri duten liburu hori. Beraz, zentzu horretan ere oso garrantzitsua iruditzen zait euskal literatura beste hizkuntzetara itzultzea, euskal literaturaren ikerketak bultzatzen baititu.

Bestetik, itzulpengintza nire ikerketen zutabe nagusietako bat ere bada, ez bakarrik aztertzen dudana autorea autoitzultzailea delako, baizik eta ezinezkoa delako, batez ere kanpoko irakurle eta ikertzaileontzat, Atxagaren lanak gaztelaniazko bertsioak kon-

tuan izan gabe irakurtzea. Eta euskaratik lan egiten dugun itzultzaileoi ere gauza bera gertatzen zaigu, jada esana dugun bezala.

Beharbada, halako kontuak argiago ikusten ditut ezagutza bikoitza daukadalako: ikertzaile gisa eta itzultzaile gisa. Eta, gainera, ongi baino hobeki jakingo duzun bezala, mundu akademikoan oso ohikoa da hizkuntza batean baino gehiagotan lan egitea: batez ere atzerriko literatura ikertzen dugunon artean, eta, zure hizkuntza hizkuntza nagusietako bat ez denean, are gehiago. Nire kasuan, nire hizkuntza (japoniera) ez da munduko handienetakoa; alderantziz, oso periferikoa da; eta ikerketarako hizkuntza nagusia (euskara) are marjinalagoa da. Baina, inguruko beste hizkuntzekiko harremanetan, hegemonikoa ere bada japoniera (ainuerarekiko eta ryukyuerarekiko, edo, gerra aurreko garaian, koreera, txinera eta beste hizkuntza asiarekiko...), gaztelania galegoarekiko, katalanarekiko eta euskararekiko harremanetan den bezala. Orduan, hizkuntzak begiratzeko dudan modua ere gero eta aniztunagoa da, ikerkuntzan eta itzulpengintzan jardun ahala. Eta nabaritzen dut horrela lortutako ikuspegiak asko eragiten duela, bai nire ikerketetan, bai itzulpenetan. Nik, behintzat, ezin dut bata bestetik bereizi, guztiz lotuta daude eta.

ELI: Zure ikuspegia oso aberasgarria iruditzen zait itzulpen ikasketetarako. Lehenago aipatu dugun moduan, hizkuntza nagusiren bat tarteko ez bada, zaila izaten da nolabaiteko oihartzunik izatea diziplinaren barnean.

NAMI: Bai, horixe gertatzen da, eta hor badago beste arazo larri bat: hizkuntza na-

gusi gutxi batzuetan oinarrituta garatua da diziplina bera. Hori normalizat jotzen da, baina gu bezalako ikertzaileok bi norabide-tan lan egin beharrean gaude: alde batetik, hizkuntza nagusiren baten bitartez gure ikerketen emaitza zabaltzen saiatuz, eta, bestetik, beste hizkuntzetan lortutako ezagutza gure hizkuntzara ekarriz. Esaterako, niretzat, modu bertsean garrantzitsua da japonieraz euskal literaturaz idaztea (horri buruzko informaziorik ia ez dagoen hizkuntza batean), gaztelaniaz edo ingelesez nire lanen emaitza partekatzea, eta oraintxe egiten ari naizen bezala euskaraz nire jarduna azaltzea eta iritziak trukitzea. Lan bikoitza edo hirukoitza izaten da, eta asko kostatzen da, bai denbora aldetik, bai esfortzu aldetik, baina uste dut norbaitek egin beharreko zerbait dela eta merezi duela. Eta espero dut aurrerantzean bertakoen eta kanpokoen arteko hartu-emanak zabalduz joatea, euskal literaturaren ikerkuntzan zein itzulpengintzan. Iruditzen zait emaitza emankorragoa atera dezakegula horrela, elkarlanean.

ELI: Guztiz bat egiten dut hausnarketa horrekin, Nami. Eta hausnarketa teoriko horiekin amaitu beharko dugu honako elkarrizketa hau. Badakit une hauetan sariaren osteko zereginetan guztiz murgilduta zabilzala, denbora handirik gabe, eta hala ere gurekin partekatu nahi izan duzula zure eskarmentuaren inguruko gogoeta. Eskerrik beroenak eman nahi dizkizut eginiko galderak erantzuteko egin duzun ahaleginagatik. Plazer hutsa izan da!